



# ARGIA



EMAKUME BASERRITARRAK

## Aitortzarik gabeko lurraren zaintzaileak

24-29. orrialdeak



#2842 | 2023 / 10 / 15 | 4,00 €



**Nagorno Karabakh  
desagertu ondoren,  
orain Armenia?**

12 | NAZIOARTEA



**'Hausnarrean. Ardiek  
egin naute artzain',  
liburu berria**

30 | JOSEBE BLANCO



**Guatemala: gerran  
zein bakean,  
feminizidioa**

35 | CRISTINA CHIQUÍN

# 2024

# Ilargia eta

# landareak

## URTEKO LANEN AGENDA



Jakoba Errekondo eta  
Antton Olariaga

Prezioa **15 €**

Bidalketa gastuak **5€**.  
Bidalketa doan **40€**-tik  
gorako erosketetan.  
Erosketak **BIZUM** bidez  
ordaindu daitezke.

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: IRATI EGUREN

## Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | MAIALEN ARTEAGA
- 21 | ARANTZA GUTIERREZ
- 22 | INMA ERREA

## Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:  
NORA SALBOTX
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO

### 30 | "GUK, ARTZAIN BEZALA, BIZI DITUGUN KEZKA, POZ ETA ERREALITATEEN LEKUKOTASUNA JASO DUT LIBURUAN"

Josebe Blancok lehen liburua kaleratu du, ARGIArekin: *Hausnarrean. Ardiek egin naute artzain*. Eguneroko berezia da, eta gazta batek bezala, bertan kondentsatuta ematen dizkigu eguneroko bizipenen hausnarketak, gizartean pil-pilean diren gaiek sortutako gaziak eta gozoak.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

### 12 | NET HURBIL I NAGORNO KARABAKH "Nora begira egon zarete?"

Urko Apaolaza

### 14 | PERTSONAIA I AHUNTZAREN EZTULA "Tatuajearen prozesua da oso garrantzitsua"

Danele Sarriugarte

### 24 | GIZARTEA I EMAKUME BASERRITARRAK

### Funtsezkoak bezain ahaztuak

Leire Artola

### 35 | NAZIOARTEA "Emakumeen kontrako bortizkeria da uzten ez den arma bakarra"

Ruben Sanchez

### 44 | KULTURA Phos (grekeraz argia)

Jone Alaitz Uriarte

### 46 | KULTURA Literatura komunitatearen sostengu

Ainhoa Aldazabal

**Jabetza**  
Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

**Erredakzioa**  
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,  
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,  
Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta,  
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,  
Lander Arbelaiz, Leire Artola,  
Manex Moreno, Mikel Garcia,  
Onintza Irureta, Pello Zubiria,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

**Diseinua**  
Maitane Gartzandiandia

**Argazkilaria**  
Dani Blanco

**Produktzioa eta inprimaketa**  
Antza S.A.L.

**Administrazioa**  
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

**Salmenta**  
Karlos Olasolo, Pello Basurto

**Banaketa**  
Olatz Korta

**Azoka**  
Mikel Olabide

**Idazkaritza**  
Aloña Soraluze, Bego Zuza

**Web garapena**  
Asier Iturralde

**Informatika**  
Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua**  
SS 837-2012

**ISSN**  
0213-909X

**Batzorde parekidea**  
72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

**Posta elektronikokoak**  
komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

**Telefonia**  
943371545

**Gipuzkoa**  
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

**Nafarroa**  
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

**aniza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**

**ADUR** software productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



A man in a black jacket and pants stands on the barrel of a tank, holding a flag with horizontal stripes of purple, white, and green. He has his right hand raised in a peace sign. The tank is in the foreground, and in the background, there are other people, some on motorcycles, and a long, low building under a cloudy sky.

# Norena da defentsarako eskubidea?

📹 Gazako palestinarrak Israelgo armadari lapurtutako tanke baten gainean, sionistek ezarritako muga gainditu ostean.

YOUSEF MASOUD / AP

 AXIER LOPEZ

## NAZIOARTEA

Larunbatean, ehunka militante armatu palestinarrek, batez ere Hamasekoek, Gazako zerrendaren inguruan ezarritako hesiak gainditu dituzte, eta lurretik, itsasotik eta airetik sartu dira inguruko hiri eta kolonia israeldarretan. Aurrekaririk gabeko ekintza horretan, milizia palestinarrek mugako hesiak hondeamakinek in situ dituzte, Israelgo armadaren ibilgailuak bereganatu dituzte, base militarretan eta polizia-kuarteletan erasoak, herriak asaltatu dituzte, hilketak masiboak egin dituzte –Zaka erreskate agentzia israeldararen arabera, Supernova musika festibalean 250 lagun hil dituzte–... Hamasek 5.000 kohete baino gehiago jaurti ditu entitate sionistaren aireko defentsa sistema entzutetsua gaindituta.

Gaur, astelehen eguerdian, Israelek dio 800 pertsona inguru hil dituztela “bere lurraldean”, eta beste 100, militarren eta zibilen artean, bahitu egin dituztela militar palestinarrek.

Erasoari erantzuteko Israelek ohiko jokabidea izan du: enegarren aldiz, Gazako herritarrek bonbardatu ditu. Palestinako Osasun Ministerioaren arabera, momentuz 510 hildako eta 2.751 zauritu eragin ditu erasoak, horien artean 91 ume.

Israel erasoaldi militar handi baterako ari da prestatzen. Israello Indar Armatuaren bozeramaile Daniel Hagarik adierazi du 300.000 erreserbista mobilizatu dituztela ordu gutxi batzuetan, hain denbora laburrean inoiz egin duen mobilizaziorik handiena litzateke.

**“GURE IRAILAK 11”**

Benjamin Netanyahu-ren gobernu ultraeskuindarreko ordezkariak esan dute palestinarren erasoak “gure irailak 11” dela, AEBetako dorre bikien aurkako atentatua gogora ekarrita. Egun hauek “Israelen historiako okerrenetakoa” direla ere adierazi dute. Eta, beraz, gerrara doazela. Aspalditik gerran ez baleude bezala. Betiko gatazka da, baina aldatu dena zera da: teknikoki zein kulturalki militarizatuen dagoen munduko herrialde baten inteligentzia eta defentsa zerbitzuek porrot egin dutela. Historikoa.

Hamasen eta Jihad Islamikoaren erasoak Israelgo defentsa sistemaren lotsak azaleratu ditu. Eta egin dute, ez dezagun ahaztu, duela hamarkada batzuetatik

Gazak jasaten duen zigor eta kontrol sistematiko erabatekoaren pean. Gai populatutako lurralde txiki hori –45 kilometro luze eta 5 eta 12 artean zabalean–, edateko ura eta energia eskuratzeko arazo larriak dituena, langabeziak eta prekaritateak jota dagoena, munduko tokirik kontrolatuena da. Horregatik deitzen diote munduko kartzelarik handiena.

Palestinako fakzio armatu batzuetako arduradun politiko eta militarren arteko koordinazio maila handia erakusten du erasoak. “Etsai komunaren” aurrean batasunaren irudia haizutzen du, eta hori Palestinan oso garesti dago azken urteotan.

Berriz ere Palestinako Aginte Nazionala (PAN) joko kanpo geratu da. Mahmoud Abbas presidentek lekua galtzen jarraitzen du Hamasen mesedetan, eta Gazan ez ezik, Zisjordanian ere bere agintearen zilegitasuna murrizten darrari herritarren artean. Gogoratu behar da PANeko aginte-egituretan aldaketa handirik ez dela izan azken hamarkadetan, eta ez duela presidentetzarako eta parlamenturako hauteskunderik egin 2005etik eta 2006tik, hurrenez hurren. Gainera, azken urtean Israelek nabarmen areagotu du palestinarren aurkako errepresio sistematikoa Zisjordanian, eta gure begietara bitxi suertatzen bada ere, behin baino gehiagotan PANen konplizitatearekin egin du. Jarrera kolaborazionista horren erakusgarri, iazko azaroan Ramallah-n emandako hitzaldi batean Abbasek esan zuena: bere lehen-tasuna dela “palestinar milizien aroari amaiera ematea”.

Kontrakoa gertatu da, ordea. Zisjordanian bertan, zenbait herritan, Nablus edo Jeninen, kasu, erresistentzia talde armatu berriak eratu dira. Eta oro har, PANen eta Hamasen eta gainerako talde armatu eta politikoen arteko arrakala handitu da. Palestinako askapen prozesuan zerbait ari zen mugitzen, eta aste-buruko eraso hauek berretsi egin dute.

**ZERGATIK ORAIN?**

Gai Humanitarioak Koordinatzeko Nazio Batuen Bulegoaren arabera, Israelek okupatutako lurraldeetan haren indar armatuek 6.407 palestinar hil zituzten 2008ko urtarrilaren 1etik 2023ko irailaren 19ra bitartean, eta 152.560 pa-

lestinarrek zauri eta lesio larriak jasan zituzten. Gazako egoera lasgarriaz gain, NBEk adierazi du 2023. urtea odoltsuena izan zela Zisjordanian okupazioaren historia luzean.

Erantzun armatua emateko arrazoirik ez dira falta izaten Palestinan. Azken erasoaldiaren bitartez borroka armatuaren bidea azpimarratu dute, haren bertsiorik gordinenean, gainera: zibil israeldarrak hil edo bahituta. Palestinako barne indarrari garrantzia kendu gabe, mugimendu geopolitikoak izan dira eta egun badira Palestinako eragile nagusietakoak. Eta kasu honetan, “kanpotik” jasotako laguntzak –ez erretorikoa soilik, materiala baizik– rol garrantzitsua jokatu du, Iran eta Hezbola buru.

Nazioarteari begirako alderdi hori ere erasoaren helburuetako bat izan daiteke. Okupazioaren aurrean erresistentzia armaturako deia izateaz gain, ez da zentzugabea pentsatzea erasoak bilatzen duela Israel eta Saudi Arabiaren arteko negoziaketa. Horretan murgilduta daude azken hilabeteotan sionistak eta Golkoko diktadura, aurretik ere beste estatu batzuekin egin bezala. 2020an Israelek “normalizaziorako” akordioak lortu zituen Arabiar Emirerri Batuekin eta Bahrainekin, eta harremanak estutu zituen Marokorekin eta Sudanekin. Hau da, herrialde arabiarrak estuki lotzen saiatzen ari da Israel, historikoki kausa palestinarretik gertu egon direnak.

Beraz, ikuspegi horretatik hobeto ulertzen dira Hamaseko buru Ismail Haniyeh-k esandakoak larunbateko erasoaren ondoren: “Herrialde guztiei esaten diegu, gure anaia arabiarrei barne, erresistenteen [palestinarren] aurrean bere burua babestu ezin duen erakunde horrek [Israel], zuei ezin dizuela inolako babesik eman”.

Gogoratu behar da, halaber, Israelgo gizartearen zati handi batek Netanyahu-ren gobernuaren aurkako mobilizazio jendetsuak egin dituela azken hilabeteetan. Auzitegi Gorenari eskumenak kendu eta gobernuari botere handiagoa emateko asmoak piztu zituen protestak. Erreforma horren bitartez, parlamentuko gehiengo sinplearen bidez Auzitegi Gorenaren epaiak indargabetzea ahalbidetuko lioke gobernuari, eta eskumen gehiago emango litzioke botere politikoa auzitegiko



Europako Batzordearen Bruselako egoitza igandean. Europako Batzordeko presidente Ursula Von Der Leyenek sareratu du argazkia igandean "Israelekin gaude" testuarekin batera.

epaileak izendatzeko. Gainera, Netanyahu bera prozesu judizial batean murgilduta dago ustelkeriagatik. Krisi politiko sakona sortu du gaiak eta egoera nahasi horrek eragin du Israelen ikusi gabeko zenbait ondorio, adibidez, erreserbista askok zerbitzu militarri uko egiteko mehatxu egitea.

Israelen bere historiako gobernurik muturrekoenak agintzen du, eta horiek hitz handiak dira indar politiko guztiak, ezkerrekoak zein eskuinekoak, blaitzen dituen ideologia supremazista baten arabera egituratutako herrialde batean: sionismoa. Ultraeskuinak gobernatzen du, urte askoan "Gazaren aurkako behin betiko eraso" eskatu duen eskuin mutur berak. Orain gobernuan daude eta beraiek ari dira egoera kudeatzen. Gobernuaren muturreko sektore horiek Gazaren erabateko okupazioa jarriko dute mahai gainean.

Israeliek berriro zigortuko ditu pa-

lestinarrak. Erruz. Ez dago zalantzarik. Eta hori hala izango zela jakinda, pentsatzekoa da egunotako eraso ez dela Hamasek, Jihad Islamikoak eta oro har erresistentzia palestinarrak prestatuta duten bakarra. Baina gauza bat argia da, gerraren logikak agintzen duenean, zentzutasuna lurperatu egiten da.

### BIOLENTZIA ALA ZER?

Israelgo lehen ministroak "alde egiteko" esan die Gazako palestinarrari, ohar-taraziz "leku orotan" egingo dutela eraso, "indar guztiarekin", eta Gazako zati batzuk "hondakin bihurtuko" dituztela.

Horretarako, Israelgo segurtasun-kabineteak ofizialki berretsi du gerra-egoera, lehen aldiz 1973ko Yom Kippur gerraz geroztik. Era berean, Israelgo kabineteak baimena eskatu du atxilotuak denbora luzez atxiki ahal izateko, auzitegira eraman gabe. Israelgo Segurtasun Ministerioak agindu du

arma-lizentziak bizkortzea eta armategietarako sarbidea ematea lizentzia duten pertsoneri, hala nola Poliziaren boluntarioei, armadako erreserbistei eta baimena duen edozein herritarri.

Hainbat gerra eta bi Intifadaren ondoren, Israeliek ezin izan du palestinarren erresistentzia okupazioaren oinarren azpian jarri. Baina, jakina, gauza bera esan dezakegu alde palestinarrari begiratuta. Izan ere, argi dago palestinarrak ezin izango dutela indarrez bakarrik garaitu munduko potentzia beliko nagusiek sortutako, finantzatutako eta armatutako estatua, AEBak eta Europar Batasuna buru. Militarki dagoen aldea izugarria da. Nazioarteko babesen balantza asko aldatu beharko litzateke egoera aldatzeko: adibidez, Iran, Hezbola eta eskualdeko beste indar arabiar batzuen parte-hartze militar zuzena bermatzea, eta Israelgo bazkide esanguratsuetan galera nabar-



MOHAMMED SABER / EPA

Israelgo gerra hegazkinak Gaza hiria bonbardeatzen igandean.

menak izatea. Hori oso zaila da gaur egun. Baina, geopolitika gorabehera, argi mintzo gaitzen: zer beste aukera geratzen zaie edo, hobeto esanda, utzi diete palestinarrei? Zer du galtzeko bere jendea baizik ez duenak?

Bestalde, Israelen ez dago apartheidaren desagerpena defendatzen duen aukera politikorik. Bat ere ez. Zergatik? Kolono antikolonialistarik ez dagoelako. Egun hauetan ez dago soberan gogora ekartzea 2014ko uztailean gertatutakoa. Lehergailu israeldarrek 2.200 palestinar baino gehiago hil zituzten Gazan, tartean 556 haur, eta 10.000 zauritu baino gehiago eragin. Gazatik hurbil dagoen Sederot herriko israeldarrak gauero muino batera igotzen ziren aulki eta edariekin, "ikuskitzuna" ikusteko, bonbak palestinarren buruen gainera erori bitartean. Joan den larunbatean, Palestinako erresistentzia islamikoak eraso bat zuen lehen tokietako bat izan zen Sederot.

### NOREN DEFENTSA?

Palestinarren erasoaldiaren aurrean, Mendebaldeko nazioarteko komunitateak "Israelgo Estatuak bere burua defendatzeko duen eskubidea" aldarrikatu du. Palestinarrak okupatzeko eta masiboki hiltzeko "eskubidea" berretsi diote Israeli berriz ere. Ukraina eta Palestina ez dira gauza bera boterearen begietan. Ukrainarren bizitzak palestinarrenak baino gehiago balio du, eta arrazoia sinplea da: Israel beharrezkoa da Ekialde Ertainean Mendebaldeko elitearen interesak bere horretan mantentzeko. Berbarako, AEBetako indar armatuetako ofizial baten arabera, Washingtonek 20 bat borroka-hegazkin bidali ditu Ekialde Ertainera, "Iranen edozein eraso edo Israelgo mugetatik haragoko borroken hedapena uxatzeko".

Ekuazio soil horren arabera banatzen dira eskubideak, horien artean atzerriko okupazio bati aurre egitekoa. Horregatik, ez dugu inoiz ikusiko Europako

edo AEBetako agintaririk Palestinak bere burua defendatzeko duen eskubidea aitortzen, kolonizazioa, okupazioa, apartheid eta sarraski sistematikoak agerikoak izanik ere.

"Zapalkuntza-harremana behin ezarrita, indarkeria martxan da. Historian, zapalduak ez dute inoiz indarkeria hasi... Zapaltzen dutenek, esplotatzen dutenek, besteak pertsona gisa onartzen ez dituztenek hasten dute indarkeria, ez zapalduak, esplotatuek eta aitortu ga-beak direnek". Paulo Freire pedagogo eta hezitzailearen hitz horiek zabaldu ditu egunotan BDS (Israeli Boikota, Desinbertsioa eta Zigorra) nazioarteko ekinbideak. Israelek arrazoi bakar batengatik egiten du egiten duena: zigorgabetasuna. AEBek eta Europako potentzia nagusiek eskainitako konplizitatean, finantzaketan eta armamentuan oinarritzen da zigor eza, Palestinako Aginte ustelaren laguntza paregabearekin. ●

## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Ulertu



UXUE APAOLAZA LARREA

**H**uts egin daiteke bizitza osoan etengabe egiten dugun horretan. Amai dezakegu bizitza gutxieneko gaitasunik garatu gabe, trebatu eta trebatu ibili garen horretan. Ez da guztiz gure errua izango, birtuosoenak ere ez badu inoiz bizitzako alderdi guztietan iaioa izaterik lortzen. Komunikatzeaz ari naiz. Elkar ulertzeaz. Nola bizi hain garrantzitsuak izanik, bakoitzak geure modura ulertzen ditugun hitzen bidez? Zer da askatasuna, laguna, bikotea, jatorra, maite zaitut, konstituzionalista, Euskal Herria.

Batzuetan, gaixoak gu, hitzez ezkutatu nahi duguna oso modu obszenoan oihukatzen dugu. Begiradak salatzen du; edo kezka tonu bat irristatzen zaigu, malako bat, hotzikara bat; ezin diogu hutsalkeriak esateari utzi, edo ezin dugu ezer esan; hitz beste egiten dugu, edo oihu; barrez lehertzen gara, eta parean dugunak ezagutzen bagaitu bakarrik entzuten du negarra. Errepi-kapenen bidez ere komunikatzen gara, beraz; ondoan izan duzunak, agian, jakingo du zure maite zaitut guztiak deszifratzen.

Batzuetan ezkutatu nahi hori ez da hain beldurtia. Politikan, maiz entzun dugu, benetako arazoak ezkutatzeko, autokritika bakar "komunikazio arazoez" hizketan; "ez dugu ondo azaltzen jakin". Komunikatzaileak esaten dugunean, ez dugu politikariengan pentsatzen, baina hori dira ia guztiz. Orain ere ari dira, komunikatzen, bidelagun bila dabilzan honetan, botoak zenbatzen, elkar konbentzitzen. Zeren eta batzuetan, bizitzan ere, esaten dizute maite zaitut, eta esan nahi dute bizitzako etapa honetan, komeni zatzaizkit.

Arriskutsua da parekoa ezagutu gabe hitz batzuk erabiltzea. Zeren eta, batzuetan, esaten duzu maite zaitut, eta ulertzen dute behar zaitut. Zeren eta, batzuetan, esaten dute maite zaitut, eta ez zuten esan nahi. Zeren eta batzuetan, esaten dute maite zaitut, eta esan nahi dute tuntuntxo, ondo zaude hor, baietz, ohe azpian, zain. Zeren eta, batzuetan, esaten dute maite zaitut, eta ez dakite zer esaten ari diren.

Zorionez, gutxi batzuetan, ahoskatzen dugu maite zaitut, eta egiaekin zerikusia daukan zer bait ulertzen dugu. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA  
www.adurlarrea.com



## MOTZEAN

**Xabier Mendiguren Bereziartu idazle, itzultzaile eta euskaltzalea hil da. Euskalgintzaren Kontseiluko lehen idazkari nagusia izan zen, ikastolen mugimenduan ere ibilia.**

**Sutea piztu zen Zubietako erraustegian, urriaren 2an, bihole-plantan.**

**Euskal Herrian Euskaraz (EHE) elkarateak Euskaltzale Independisten Topaketak egin ditu Amasa-Villabonan. Euskararen Errepublikaren eraikuntzan jarri dute begirada.**

**Beasaingo tren lantokiko hiru nabe amiantoz kutsatuta zeudela jakin ostean, Enpresa Batzordeko kideek salatu dute zuzendaritzak informazio "erabat eskasa" eman diela.**

**Teknologia berriak euskaraz trebatzeko, euskarazko ahotsak bilduko ditu Gaitu ekimenak. Parte hartzera eta euren ahotsa grabatzera animatu dituzte herritarrak.**

**Plastiko konpostagarrizko poltsak ohikoak baino toxikoagoak direla frogatu du Espainiako Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusiko hainbat ikerlarik.**

## EKONOMIA

# Arrakalaren enegarren aurpegia



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

338 eurotako alokairua edo 119.000 eurotako erosketa. Horiek dira 18 eta 44 urte arteko emakume batek batez beste ordaindu dezakeena bere kabuz bizitzen jartzeko EAEn. Beti ere, etxebizitzarako gorde beharrekoa gehienez diru-sarriren %30 dela kontutan hartuta. Eusko Jaurlaritzaren datuak dira, eta beraiek ere onartzen dutenez, urruti geratzen dira bi aukerak gure herrietan –eta ezinezkoa hiriburuetan–. Gutxienez soldataren erdia baino gehiago bideratu behar da etxebizitza bat eskuratzeko, ontzat jotzen den ahalegin ekonomikoaren bikoitza, beraz.

Halakoa da nahi eta ezinaren argazkia: 2022an etxebizitza premia adierazi zuten hamar emakumetatik zazpik ez zuten baliabide nahikorik etxebizitza eskuratzeko. Urratua zuten oinarritzko eskubidea izan behar duena. Eta ez da momentuko gauza, 2019arekin alderatuta eskariek %4,4 egin dute gora; baliabide nahikorik ez duten emakumeen kopurua, berriz, %13koa da. Ezintasun horretan bizi direnak gizonak zein emakumeak izan arren, arrakala bistakoa da hemen ere: ahalegin handiagoa egin behar dute emakumeek, eta aukerarik ez dutenen artean ere emakumeak dira nagusi. Hortaz, politika publikoen bidez etxebizitza eskuratzeko zerrendetan emakume gehiago daude gizonak baino.

Beste datu esanguratsu bat: 80 urtetik gora dituztenen artean %64 emakumeak dira. Etxebizitza egokitzeko premia handiago izanik, baliabide urriagoak dituzte. Soldata arrakalaren enegarren aurpegia da hau, soldatan izan zein pentsioan izan, merkatua jaun eta jabe den eremuan aukera gutxiago dituzte, bizi baldintza okerragoak eta politika publikoen premia handiagoa. Eta noski, gabezia horiek sufritzen lehenak dira. ●

## ANALISIA



LAB

## Onddo bizi garela

 URKO APAOLAZA AVILA

Urriaren 25ean eta abenduaren 19an 150.000 langile publiko grebara deitu dituzte LAB, ELA, CCOO, Steilas, Satse eta ESK sindikatuek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Ez dira greba bakarrak izango: EHUKo irakasle eta ikertzaileak urriaren 11n; Hezkuntza Bereziko irakasleak, sukaldariak eta garbitzaileak urriaren 24an... Eta azaroaren 30ean zaintza publiko-komunitarioaren aldeko greba feminista orokorra Euskal Herri osoan. Udazken beroa dator.

Deialdi horien aurrean Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izandako erreakzioak berriz harritu gaitu, ohituta behar genukeen arren. Iñigo Urkulluk "irudi katastrofista" islatu nahi izatea egotzi die. Jokin Bildarratzek, berriz, hezkuntza publikoan "propina" bat gehitzea –greba egun bat gehiago deitzeagatik–. Eta Pedro Azpiazu Ekonomia sailburuak euskal irratiko publikoan esandakoak ere nabarmendu daitezke. Kezkatuta agertu zen sailburua, grebak "egun batean bai eta bestean ere bai sortzen direlako". Bere ustetan, grebara "ailegatu" aurretik gauza gehiago egin daitezke. Eta greba horien intentzionalitateaz ere zalantzak agertu zituen, "denak batera" sektore publiko ezberdinetan deitu direla eta "zeozer" badagoela atzean.

Ez dira hitz hutsalak, greba desakreditatzeko ondo neurtuak dirudite behintzat. Greba, saihestu beharreko muturreko neurri bat. Greba, askoren arteko konspirazioa bat. Greba, sindikatuen kapritxo bat, ondoak pagadietan bezala ateratzen direnak auskalo zergatik. "Nik uste gure herrian nahiko ondo bizi garela", dio Azpiazuk gorbatari zimurrik atera gabe.

Sindikatu eta eragileek aurretik erantzun dieten horiei guztiei, deialdietan bertan emandako hainbat datuekin: langile publikoen erosteko ahalmena %20 jaitsi da; lan-kargak handitu dira; ordezkapen falta izugarria dago; sektore feminizatuetan dagoen soldata arrakala %25ekoa da; etxeko langile egoiliarren laudatik batek ez du kontraturik... Eta lan-baldintza eskas horiek zerbitzu publikoen kalitatean zuzen-zuzenean eragiten dute. Denok ikusi dugu irakasleen artean dagoen behin-behinekotasunak zer nolako ondorioak dituen hezkuntzan; Osakidetza itxaron-zerrendak norainokoak diren badakigu; eta uda honetan herri askotan pediatria gabe egon direla jakin dugu berrikitari.

Baina sektore publikoaren "narriadura" –sindikatuak hitz hori erabili dute– disimuluan eta isilpean dator askotan, datu makroekonomiko onek estalita. Horregatik ausartzen da zenbait agintari esatera ez dagoela arrazoirik oasi honen gerizpean grebak hain erraz "sortzeko". Orbel artean ondo bizi garela alegia. ●

## TEKNOLOGIA

## Euskal baratze digitala



DIANA FRANCO

**A**zken urteetan jarraitu dut eragile euskaldunen lana eremu digital-talean. Gaur egun, badira eremu digital-talean eta berau sustatzen duten teknologien inguruan euskararen rola ulertzeko modu ezberdinak. Zutabe honetan, zenbait gogoeta partekatuko ditut ikuspuntu horien inguruan, betiere nik ezagutzen dudana mugatua dela aitortuz, eta idaztearekin batera nire ideiak argitzeko helburuarekin.

Gaur egun teknologiarekiko duten harremanari lotuta hiru eragile edo proiektu modu ikusten ditut. Ez dute zertan baztertzaila izan elkarren artean, ni neu proiektuaren arabera alde batean edo bestean izan ohi naiz.

Batetik, euskalgintzari estuki lotuta dauden eragileek euskararen presentzia bultzatu nahi dute baliabide digitalen plaza erraldoian. Errealitate bat buruan, pertsonak, elkarrizketak, edukiak dauden tokietan agertu dadila euskara.

Bestalde, aurrekoen lana errazte aldera bada berrikuntza teknologiko ugari lantzen dagoen eragile multzoa. Automatizazioarekin euskaraz eremu digitala osorik eskuratzea gertuago da goela ulertzen dutenak.

Azkenik, hainbat eragileek eremu digital euskalduna gertuko baratze digital baten antzera irudikatzen dutela dirudi. Eta ideia horrekin, eremu digitala eta berau sustatzen duten teknologiak birpentsatzen dabilta. Euskaldunen harremanak, elkarrizketak, edukiak... errazteko eta zaintzeko teknologia alternatiboak bilatzen dituzte. Euskararentzako baratze digitala sortu dute, baratzea lantzen ikasi dute, ezagutza berenganatu, burujabe bilakatu, eta gainera, uzta partekatzen dute, ezagutza librea denon eskura jarrita, berrikuntza zabalduz beste eragileon artean.

Egun ditugun teknologia digitalak mundua irudikatze eta munduari forma emateko aukera paregabeak eskaintzen dizkigu, eta bide horretan euskara berrikuntza iturri bilakatu da. ●

## Hezkuntza Legea ahulduta iritsi da azken txanpara

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

**L**egegintzaldi honetan bertan onartu nahi duten EAEko Hezkuntza Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea amaitu zen joan den astean. Lege akordioa sinatu zuten alderdietako bat jausi da dagoeneko, barruan jarraitzen dutenen artean desadostasun nabarmenak dituzte eta hezkuntza komunitateko hainbat eragilek gogor kritikatu du badatorren legea.

Legegintzaldi honetako erronka anbiziotsuenetakoak 2022ko martxoan jarri zuen mugarria: EAJ, EH Bildu, PSE eta Elkarrekin Podemos-IUK Hezkuntza Legea abiatzeko akordioa lortu zuten, alegia Eusko Legebiltzarren %90eko babesarekin hasi zuten ibilbidea legeak. Akordio hura oinarri hartuta, legearen zirriborroa eta lege proiektua burutu dira, eta ez dira gutxi izan eragile ugariengandik jasotako kritikak. Alderdi politikoaren artean ere, izan da mugimendurik: Elkarrekin Podemosek adierazi du lege proiektuari osoko zuzenketa aurkeztuko diola, egungo kontzertazio ereduak betikitzen duela eta eskola-segregazioari aurre egiteko konpromisoa falta zaiola argudiatuta.

PSEren desadostasunak batik batik hitzuntza ereduari daude lotuta: egungo A, B eta D ereduak mantenduko direla espresuki jaso nahi dute legean, eta hala izan dadin azken unean emendakina adostu du EAJrekin. Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak, ordea, dio emendakinak ez duela hori esaten, egungo ereduak eraldatu behar direla baizik. EH Bilduk kritikatu egin du PSE-EAJren akordioa, ez dago hiru hizkuntza ereduak jasotzearen alde, baina eztabaidatzen jarraitzeko prest agertu

da, hainbat zuzenketa aurkeztu arren "aukera historikoa" baliatu nahi baitu, hezkuntza lege bat aurrera ateratzeko.

Ikusi beharko da EAJ, EH Bildu eta PSEren aldeko botoak izango dituen legeak azkenean, baita Elkarrekin Podemos-IUrekin negoziaketek beste norabide bat hartuko duten ere. Denbora askorik ez dirudi dagoenik, Bildarratzek behin baino gehiagotan adierazi dituen epeak betez gero: legegintzaldi honetan nahi da aurrera atera legea.

### LEGEAREN BABES SOZIALA

Eusko Legebiltzarrean alderdiek aurkeztu, eztabaidatu eta onartuko dituzten zuzenketen ostean ikusiko dugu legearen azken bertsoa, baina alderdien arteko gorabeheretatik harago, hezkuntza komunitateak ere ozen hitz egin du eta hainbat eragileren kritikek kolokan utzi dute legeak duen babes soziala.

Azken polemikari lotuta, hain justu, euskalgintzatik eskatu da zehazteko legeak defendatzen duen "euskara ardatz duen sistema eleaniztuna"; euskalgintzak aspaldi aldarrikatu du D eredu edo murgiltzea dela eskola guztietara orokortu behako litzatekeena.

Besteak beste, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa eredu arbuia du hainbat eragilek (legearen oinarri nagusietakoa), sare publikoa eta pribatua parekatzen dituela argudiatuta. Eskola-segregazioari aurre egiteko neurri eta tresna nahikoa ez dagoela ere kritikatu dute. Are, batzuentzat, zuzenean, legea goitik behera da desegokia, eta Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak legearen aurka manifestazioa deitu du urriaren 29rako, Donostian. ●



Hezkuntza Akordioa sinatu zuten alderdiak.

# NAGORNO KARABAKHEKO KAZETARIAK DIOSKU: "NORA BEGIRA EGON ZARETE?"

Harrituta begiratzeko diogu Kaukasoko puzzle konplikatuan gertatzen ari den exodo berriari. Nagorno Karabakheko armeniar ia guztiek –120.000 lagun– ihes egin dute Azerbaijanen azken erasoaren ostean. Hustuketa etniko bat. Baina, duela bederatzita hilabete Armeniarekin zuten zibilborreste bakarria, Natxingo pasabidea itxi eta hango herritarrak ezer gabe irautera kondenatu bitartean, nora begira egon gara?

 URKO APAOLAZA AVILA

**24** orduko bonbardaketa nahikoa izan da irailaren 19an Azerbaijan boteretsuak Nagorno Karabakh –Artsakheko Errepublikak ere deitua– mapatik borratzeko. 2020ko 44 eguneko gerra odoltsuan hasitako lana errematatu du Ilham Aliyev-en gobernu azerbaijandarrak Baku hiriburutik. Urtarrilaren 1etik herrialdea ez da existituko, ez politikoki, ezta biztanleriari dagokionez ere, kasik ez baita armeniar bakar bat ere geratzen Europako azkenaldiko exodo handiaren ostean: 100.000 lagun baino gehiagok utzi dute euren etxea, Armeniarantz doan auto-karabana amaigabea.

Azerbaijandarren erasotik egun batzuetara, BBC irrati-telebista kate publiko britainiarrak zioen "armeniar etniako kazetari bat autoen buxaduraz informatzen" ari zela mugan. Albistearekin batera datorren bideoan klikatuz gero Siranush Sargsyan ageri zaigu errepede ertzean, Stepanakerteko –Nagorno Karabakheko hiriburua– blogari ezkeriar independentea: "Ikusten duzuen bezala oraindik harrapatuta gaude bidean. Exodo hau jasanezina da, ez soilik psikologikoki, baizik eta jende asko bere bizitzan hirugarren aldiz bilakatuko delako errefuxiatu. Jada 16 ordu daramagu errepede honetan, eta ez dut uste 24 ordutan mugara iritsiko garenik. Jende bat ondoezak jota dago edo konortea galtzen ari da, gaixotasunak dituzte eta ez dago sendagilerik. Zenbaitek atzera egin behar

izan dute euren senideak artatzeko".

Azerbaijan eta Armeniaren arteko gatazkak sorturiko ebakiduraren barrutik hitz egiten digu Sargsyanek. Baina hobe genuke gainerako kazetariok bere SOS deia duela bederatzita hilabete entzun izan bagenu, Nagorno Karabakheko blokeoa hasi zenean, eta ez orain.

2022ko abenduaren 12an militar azerbaijandarrek –ingurumenaren aldeko aktibistez mozorrotuta– Latxingo pasabidea itxi zuten, Karabakh Armeniarekin lotzen duen errepede bakarria. Bertatik egunero 400 tona elikagai eta material garraiatzen zen, eta ondorioz milaka armeniar hilabete luzetan oinarritzko beharrianik gabe utzita (gasolioa, gasa, esnea, botikak, konpresak...) triskantza handia eragin du blokeoak.

ARGIA aspaldiko lagun eta kolaboratzaile dugun Karlos Zurutuzak ezin hobeki laburbildu du herrialde menditsu horretan gertatzen ari zenari munduak egin dion ezikusia: "Nagorno Karabakh, edo zergatik kazetaritzak ez duen ezertarako balio berandu iristen denean", izenburua jarri dio *Jot Down* aldizkariako artikulu bati. Alegia, tokiko kazetariak eta armeniar diasporak etengabe jo zutela hedabide nagusietako atea, baina alferrik, eta pasa den abuztuan NBek Azerbaijan ohartarazi zuenerako eragiten ari zen krisi humanitarioaz, berandu zen.

Garbiketa etnikoaren estrategiari jarraiki, eraso hasi baino egun batzuk lehenago ireki du Latxingo muga Bakuk,

herritarrak tropelean irten daitezzen herrialdeetik: "Uste dut azeriek armeniarrei irteten utzi badiete sudurrak eta belarriak moztu gabe (hori lehenago gertatu da), munduak, berandu bada ere, begiak haien gainean dituelako izan dela –dio Zurutuzak–. Lehenago blokeo horren gainean jarri izan balitu, agian Baku ez zen bonbardatzera ausartuko. Inork ez du begiratzeko krimena egiten duzunean. Nahikoa da hiru urte atzera egitea horretaz konturatzeko".

## GENOZIDIOAREN MEHATXUPEAN

Nagorno Karabakheko gatazka 1990eko hamarkadatik dator, Sobietar Batasunaren desegitearen testuinguruan. Lehen gerra hartan –gutxienez 30.000 hildako eragin zituen– armeniarrek garaitu eta lurraldea bereganatu zuten; orduan gertatu zen bi herrien arteko lehen bereizketa handia, lehen exodoa batera eta bestera. Gero 2020ko gerra laburra gertatu zen, baina urte hartako irailean hedabideak okupatu egi zeuden AEBetako hauteskundeekin eta COVID-19aren olatu berriarekin.

Gas erreserbekin lortutako diruaz gizendu den Azerbaijango armada modernoak etengabe bonbardatu zituen Stepanakert eta inguruak, eta Nagorno Karabakhen bi herenez jabetu zen Baku. Zapaltzea geratzen zen heren bakarria gosez eta hotzez desagerraraztea izan da bere hurrengo jokaldi siniestro.

Siranush Sargsykh hainbat hedabide



**IHESA** Milaka armeniarrek ihes egin dute Nagorno Karabakhetik Latxingo pasabidean barrena auto-ilara luzeak osatuta. Bederatzi hilabeteko blokeoaren ostean, asko osasun egoera larrian iritsi dira Armeniako Goris hirira. Mapan, Armenia eta Azerbaijan arteko puzzle konplexua. / DESCIFRANDO LA GUERRA

ezagunetan kolaboratu izan du, CNN, OpenDemocracy, edo *Newsweek*, esaterako, eta azken urtean Nagorno Karabakhen bizi izan duten blokeoaz artikulu eta elkarrizketak irakurri dizkiogu *The Armenian Weekly* astekarian, Nueva Revolución atarian, edo gertuago, AraInfo Aragoiko egunkari digital librean.

"Antibiotikoak, antipiretikoak, bularreko haurrentzako medikamentuak, elikagaiak, fardelak eta gaixo kronikoentzako botikak falta dira", zioen abenduan blokeoa hasi zenean, farmazialari batekin hitz egin eta gero. Uztaila iristerako nahigabeko abortuen kopurua hainbeste handitu zen, ezen "aurreko urtekoaren hirukoitza dela", ginekologo batek kontatu zionez. Hala ere, bere esanetan blokeoaren alderdi gogorrena psikologikoa

izan da: "Gure jendea ohituta dago gabezia materialetara, baina orain batez ere genozidioaren mehatxupear bizi gara".

Beste blokeo batez ere mintzo da kazetaria: 2020ko gerra ostean eta, are gehiago blokeoarekin, nazioarteko kazetariari Nagorno Karabakhera sartzea eragotzi eta sorturiko informazio hutsuneaz. "Hori izan zen ni idazten hasteko arrazoia, hemen gertatzen ari dena kontatzeko".

Orain Sargsyk jarraitzen du X sarean armeniarren exodoaren berri egunez egun ematen. Bere azken txioan amona baten irudia zintzilikatu du: "Azerbaijandarren bederatzi hilabeteko gose-setioak irauten bitartean, 90 urteko Aneshkhak helburu bakarra izan du: bere semea berriz ikustea. Inbasioaren ostean Gorisera iritsi da, Armeniara, eta urtebeteen lehen

aldiz besarkatu ahal izan du semea. Gero bere besoetan hil da".

Nagorno Karabakh desagertuta, Kaukasoko joko taulan erortzen hurrengo pieza Armenia izango dela uste du askok. XX. mende hasierako armeniar genozidioari buruzko aipuak ez daude soberan. Nikol Pashinianen gobernuak Errusiarekiko hasitako urruntzeak eta Europako mendebaldeak duen gasarekiko menpekotasunak egoera geopolitiko aldatu du. Azerbaijanek hori baliatu dezake arrebana-anaiatzat duen Turkiarekin hitzez ez ezik -azerbajandarrak turkiera hitzunik dira- lurrez ere lotzeko. Horretarako Nakhitxevan esklabea banatzen duen Zangezurko pasabide armeniarra bereganatu dezake. Nora begiratuko dugu oraingoa herritar eta kazetariok? ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
zinkunegioptika.com



# Ahuntzaren Eztula

ORRATZA ETA AZALA



## TATUAJEAN, EMAITZAZ GAIN, PROZESUA DA OSO GARRANTZITSUA



Bazkari batean Ahuntzaren Eztula tatuatzailearen alboan suertatu nintzen arte –iazko Feministaldian– ez nekien *handpoke* teknika existitzen zenik ere. Berehala aitortu nion azala markatzeak betidanik sortu izan dizkidala erakarmena eta bertigoa. Hizketan aritu ginen azkenburukoak arte. Eta orain tatuajeak ditut.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### Noiz eta nola hasi zinen tatuajeak egiten?

2017 inguruan. Bilbon bizi nintze-la, lagun batekin eta lagunena azaletan saltseatzen hasi nintzen. Egia esan ez nuen inoiz proiektatu tatuatzaile izango nintzenik, jolasetik hasi ginen eta nahiko inprobisatua izan da urte hauekako ibilbidea. Gero hona itzuli nintzen, Gipuzkoara, jendea tatuatzen nuela enteratu zen, gainera *handpoke* teknikaz —nahiko ezezaguna zen— eta niregana etortzen hasi ziren. Pixkanaka joan naiz geroz eta jende gehiago tatuatzen.

### Zure burua lan horretan proiektatu ez arren, gustuko zenituen tatuajeak?

Bai. Oso goiz egin nuen lehenengoa, izebak eta amak lagundu ninduten. Txikitatik izan dut tatuajea osatze-prozesu modura erabiltzen zuten zibilizazio zaharrekiko interes handia.

### *Handpoke* teknika erabiltzen duzu.

#### Zer da?

Beti konparatzen dut eskuz edo makinaz jostarekin. Kasu honetan *handpoke* teknikaz, orratz batez, haria erabili ordez,

tinta da marra trazatzen duena, eta euskarria azala da, oihala beharrean.

### Hasieratik izan zenuen interesa teknika horrekiko?

Ikasle-garaiko prekarietatea izan zen makina ez erostearen arrazoia. Probatzeko, orratzak erosi genituen, eta horrekin hasi ginen. Makina askoz garestiagoa zen, beste nolabaiteko jakintza bat ere eskatzen zuen. *Handpoke* teknikaz nola eta noraino ziztatu behar duzun ere ikasi behar da, baina gertukoagoa iruditzen zait, gordinagoa.



# Ahuntzaren eztula

PASAIA, 1993



Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon, eta orain dela sei urte inguru hasi zen tatuajeak egiten. *Handpoke* teknikarekin tatuatzen du, hau da, eskuz, makinarik gabe, eta tatuajearen prozesua zaintzea eta mimatzea gustatzen zaio. Badu estilo bereizgarri bat: marrak, bestelako forma geometrikoak, fauna eta flora, eta euskal iruditegiko elementuak egiten ditu, esate baterako. Haren Instagramean topatuko duzue lagin eder bat: @ahuntzareneztula.

## Dena den, une jakin batean makina bat erosi zenuen, eta gero utzi egin zenion erabiltzeari.

Erosi nuen, eta tatuaje batzuk egin ere bai, batez ere jendeak gauza handiak eskatzen zizkidalako, eta halakoe-tarako azkarragoa eta praktikoagoa da makina. Baina ez neukan *handpoke*-arekin neukan sentsazio berdina. Askoz ere konektatuago sentitzen naiz *handpoke* teknikarekin: soinurik gabe, soilik orratza, azala, eta ni; purutasun hori.

## Zein dira bi tekniken arteko alde nagusiak?

Niretzat *handpoke*-ak badakar zer-bait energiaren aldetik, gertukoagoa iruditzen zait azalarekin edo beste pertsonarekin. Zikatrizazioa azkarragoa da *handpoke* teknikaz, azalak gutxiago sufritzen du eta, odol gutxiago botatzen da... Baina hori pertsonaren bizimoduaren baitan ere badago.

## Handpoke-arekin, bestalde, elektrizitaterik behar ez denez, mugitzeko askatasun handiagoa duzu.

Bai, mugimendurako aukera gehiago ematen du, beste espazio batzuetan tatuatzeko, naturan tatuatzeko, betiere neurri higienikoak bermatuta, noski. Eta niri asko gustatzen zait naturan tatuatzea, asko gustatzen zait arrasto megalitikoak dauden espazioetan tatuatzea.

## Zer interes duzu horrekiko?

Esaten da eraikuntza megalitikoak altxatzen zirela energia-fluxu handiak zeuden lekuetan, azpiko urak zeuden lekuetan, eta nolabait espazio horietan sortu dena sentitzeak berezi egiten du prozesua. Ez dakit aipatu dudana, baina niretzat, emaitzaz gain, prozesua oso garrantzitsua da.

## Ahuntzaren Eztula izena nondik dator kizu?

Atsotitzetik. Egia esan, ez naiz oso ondo gogoratzen. Bilboko garaian izan zen, Instagramean zer izen jarri pentsatzen. Ahuntza, nire mendizale-tasunarengatik, eta suziri andrea izateagatik. Bestalde, ahuntzaren eztulak prozesuaren alderdi hori ere islatzen du: ikusezinak garrantzia du.

## Baduzu tatuatzeko estilo bat: landareak, forma geometrikoak...

Esango nuke alor ezberdinetan geometria badela erakartzen nauen zer-bait: eskulturan, arkitekturan eta marrazketan ere bai. Naturako elementuak eta euskal iruditegiko lanabesak ere oso barrutik atera zaizkidan formak izan dira.

## Eta marrak?

Gogoratzen naiz marrak egiten hasi nintzenean herrian esaten zidatela: marrak zertarako? Hasierako momentutik pila gozatu izan dut prozesu honekin: gorputza osotasun batean ikusi eta osotasun horrekin jolastearekin. Gorputz horrek zer eskatzen didan ikusi eta marren bitartez antolatu.

## Nolakoa izaten da tatuatzera datorren pertsonarekiko harremana? Nolabaiteko lankidetzat bat gertatzen da? Zuk zeuk badituzu diseinu batzuk...

Nire erronketako bat da diseinu gehiago egitea, zeren egin izan ditut, baina nahi baino gutxiago, azkenean egunerokotasuneko beharrak asetzen joan naiz eta. Zerbait eskatu, hau egin.

## Orduan jendeak eskatzen dizu hau edo bestea egin nahi duela...

Bai, ezezkoak ere eman izan ditut, erakartzen ez didaten formak edo elementuak eskatzen badizkirate, eta ezezkoak eman dizkiet baita ere sentsazio ona eman ez didaten pertsoneri edo seguru sentiarazi ez didaten pertsoneri. Normalean Instagrametik idazten didate, edo ahoz aho: mezu bat bidali edo deitu. Hortik sortzen da prozesua. Beraien ideia zein den esan, nik nire estiloan irudikatzen dut, eta saiatzen naiz ahalik eta gertukoena izaten eta bi aldeak eroso sentitzen. Inprobisatzen ere izan daiteke.

## Jendeak zer eskatu ohi dizu gehien?

Ba, lehenagoko galderarekin lotuta, marrak, elementu geometrikoak, hemengo eta beste kultura batzuetako forma eta sinboloak ere. Gauza ornamentalak. Azkenean marrak badira ornamentalak, gorputzaren formarekin jolasten dute, belarrien, behatzen, oinen... formara egokitzen, adibidez.

## Bihotzean gordeta daukazun esperientziarik?

Orokorrean pertsona jakin batzuekin



izandako hartu-eman bereziak. Harreman politikak sortu ditut tatuajearen bitartez, pertsona interesgarri asko ezagutu ditut, miresten ditudan pertsonak tatuatu, energia oso berezia sortzen da prozesuan... Beste leku batzuetan tatuatu.

### **Tatuajeak egiteko berariazko girorik edo sortzen duzu?**

Esango nuke baditudala erritualtxo batzuk. Batetik eta nire bizitzan orokorrean oso garrantzitsua dena, usaina. Intentsua eta beste usain batzuk. Gero musika ere, *playlist-a* aukeratzen dut momentuan sentitzen naizenaren arabera, edo ez dakit, agian aurreiritziak dira, baina zu tatuatzeko bazaitut, Da-

nele, ba *playlist* hau jarriko dut. Eta gero janzkera, beti beltzez.

Bestalde, naturan tatuatu izan dudanean, askotan gertatu izan da hartu-eman hori, espazio berriak ezagutzea. Aurrekoan Oiartzunera joan nintzen, eta ezagutzen ez nuen leku bat erakutsi zidaten, mairu-baratzekin, eta oso polita izan zen hor tatuatzea.

### **Esan bezala, zure espazioan tatuatzeaz aparte, hortik kanpo ere egiten duzu.**

Ez da askotan egiten dudana zer bait, bai-

na bai. Aurten, adibidez, Greziako irla batean egon nintzen udan. Orratzak eraman nituen eta kristoren esperientzia izan zen.

### **Tatuajeak egin dituzu Grezian?**

Bai. Karteltxo bat jarri nuen herrian, eta jende pila batek idatzi zidan. Ez nuen imajinatzen eta...Oso esperientzia berezia izan da. Atzerrian ez naiz inoiz horrelako hartu-eman berezi bat egiten jardun. Greziak badu kultura oso indartsua, lurraekin eta beraien historiarekin oso lotua, eta horrelako prozesu batean hori jasotzea berezia izan da, iruditu zait beste modu bat dela espazio baten parte izateko eta harremanak sortzeko.

### **Esaten dute, behin hasiz gero, tatuajeak adikzio baten modukoak direla... Hala uste duzu? Zer simbolizatzen du tatuajeak?**

Bakoitzak bere gorputzarekiko daukan konexioaren baitakoa da hori, eta tatuaje horrekin zer irudikatu nahi duen. Batzuek beren haurren edo beste norbaiten izena tatuatzeko dute, edo beren baserriko harri bat... edozer. Niretzat adikzioa sortzen duena prozesua da, prozesuak ematen didana, baina bada go gorputza eraldatzearen kontzeptu hori, jendeak piercing bitartez, janzkeraren bitartez, orrazkera aldatuz... ere egiten duena. Uste dut hori dela adikzioa hein batean, horrek engantxatzen du, eta aparte modak jarraitzea ere bai, noski. Batzuek asmo oso argiak izaten dituzte: beso guztia tatuatuta eduki nahi dute, edo gorputz guztia, edo bizkarrean istorio bat kontatu, edo Japoniako elementuak soilik tatuatu... Beste batzuek, berriz, eta nire kasua hori da,

momentuan momentukoa egiten dugu. Ezin dut irudikatu bi urte barru zer nahi izango dudana. Orain hemen nago eta erabakitzen dut hau egitea, baina etorkizunean zeinek daki.

“**Oso jende helduari ere egin dizkiot tatuajeak; 80 eta piko urteko emakume bati bere lehena egin nion. Etorri ziren bera, alaba eta iloba tatuaje berdina egitera**”

**Tatuatzeko uneak izan dezake puntu katartikoa ere, esku-hartze oso zuzen da**

**gorputzean, sentsazio asko**

**pizten ditu, mina eta plazera...**

Hor ere pertsona bakoitzak minarekiko daukan tolerantzia eta lotura sartzen dira. Batzuek nahiago dute min handiago jasan baina denbora gutxiago; horiei

ez diet gomendatzen *handpokea*, edo bai, baina kontuan har dezatela denbora gehiago izango dela makinaz baino. Beste batzuei ez zaien inporta denborarena. Trantze moduko batean sartzen dira, prozesuaz nolabait gozatzen: "Tatuajea egiten ari naiz, denbora X, ez dakit noiz bukatuko duen, baina aurrera".

### Tatoo Circus jaialdian eta Feministaldian ere aritu izan zara tatuatzen. Nolakoa izan da hori?

Beste esperientzia bat izan da, eta oso eskertuta nago. Gozatu izan dudaren, nahiago dut modu intimoago eta lasaia batean tatuatzea. Jaialdian

halako azkartasun batean sartzen zara: etorri, kalkoa jarri, egin eta agur. Bata bestearen atzetik. Halakoetan beti galditzen naiz prozesu bakoitza gehiago ez mimatu eta zaintzearen penaz.

### Badu puntu militanteago bat.

Tattoo Circus espespeteen aurkako jardunaldia da, kartzelen aurkako borroka ikusarazteko eta finantzatzeko.

Errekaleorreko circusean egon nintzen, behin bakarrik. Neurri batean militantea da, nahiz eta tatuengatik dirurik ez lortu, asko jasotzen duzu, horri esker nire lana zabaldu eta beste artista batzuk ezagutu ditut. Halako beste jaialdi batean egon nintzen Lizarran, emakume eta transen Tattoo Circus bat, eta hor adibidez artista oso interesgarriak ezagutu nituen: trans, bollerak, emakumeak...

### Izan ere, aktibismo bolleroan ere aritzen zara. Badu eraginik zure jardunean?

Nik uste dut horrek ate gehiago ireki dizkidala. Lagunartean beti komentatu izan dugu, mediku, ginekologo, masajista... tranfeministak edo bollerak ezagutuko bagenitu, horra joango ginatkeela, espazio seguru hori lortzarren. Eta nik uste dut logika horrekin ere niregana etortzen dela jende transmaribollo asko. Horretaz gain egongo dira afinitate faltagatik edo gustu estetikoarengatik beste artista bat hautatzen dutenak.

### Ezagutu dituzu antzeko posizionamendua duten beste tatuatzaile batzuk?

Bai, Bartzelona ingurukoak, bollerak, transak, tatuajearen mundu militante horretan asko ibiltzen direnak, eta batez ere kolektiboko jendearekin lan egiten dutenak. Oso interesgarria izan zen, esperientziak konpartitzeko eta errealitate ezberdinak ezagutzeko.

### Zaila da bizibidea ateratzea tatuatzaile gisa?

Beste diru iturri batzuk izaten saiatu naiz, pasio hori ez galtzeko edo izan daiteke pasio hori galtzeko beldurrez. Tatuajeak nire behar ekonomikoetan pisu gehiago hartu duenean, esentzia hori pixka bat galdu egin duela sentitu izan dut. Kontraesanak izan ditut eta orain-

dik ere baditut, afizio-ofizio horretan. Niretzat, tatuajea bada mendi-puntara igo eta jaistearen antzeko zerbait, plazerra ematen dit, goraldi moduko bat...

### Eta ez duzu nahi goraldi hori bihurtzea zure diru-iturri nagusia, tatuajearekiko duzun harremana aldatu egingo litzateke-eta diruaren eraginez.

“

**Askoz ere konektatuago sentitzen naiz 'handpoke' teknikarekin: soinurik gabe, soilik orratza, azala, eta ni; purutasun hori”**

Gutziz. Dena den, zaila egiten zait. Hainbat diru-iturri edukitzeak denbora eta energia eskatzen du, eta azkenean horrek nire bizitzan presaka ibiltzea eta beste gauza batzuk ez zaintzea eragiten du.

### Etorkizunerako ametsik edo erronkarik baduzu?

Aurreko astean amestu nuen Aizkora izeneko tatuaje-estudio batean tatuatzen nabilela. Estudio hori existitzen da, Nabarrerian kalean dago, Iruñean, baina nire ametsen bertako langileak pertsona transmaribolloak ginen, eta bereziki kolektibo horretako pertsonak tatuatzen genituen. Horrelako lan-militantzia eredu batek bai erakartzen nau eta, adibidez, nire lana lan arrunt bihurtzekotan bide hori aukeratu nukeela eta gustatuko litzaidakeela uste dut.

### Aurreiritziak ere badaude tatuajeen inguruan. Zuk halakorik jaso izan duzu tatuatzailea zarela esaten duzunean?

Familian, hasieran, bai esan zidaten: "Nola tatuatzen hasi zarela? Jendeak tatuajeak egiten ditu?". Ez bakarrik nik tatuajeak nituelako gorputzean, baizik eta ni neu hasi nintzelako besteei egiten. Familian asko lotzen zuten kartzelarekin edo marinelekin, eta halako batean alabak tatuajeak egiten dituela... "Bestarik ez genuen behar". Oso hortik izan zen erreakzioa.

### Orain ez dute horrela ikusten?

Ez, orain interesatu egiten zaie. Beraien ikuspegia ere aldatu da. Orokorrean ere aldatu da. Oso jende helduari ere egin dizkiot tatuajeak; 80 eta piko urteko emakume bati, adibidez, bere lehenengo tatuajea egin nion.

### Hara.

Etorri ziren bera, alaba eta iloba tatuaje berdina egitera. Oso polita izan zen. ●



**aholkukoop**  
Fiskala Kontablea Laborala

**EKONOMIA SOZIAL  
ETA ERALDATZAILEAREN  
BIDEAN DOAZENEN  
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behea / Donostia  
943 005 680 aholku.eus



**mitxelena**  
MEKANIZATUAK

**Ezagutu dituzu antzeko posizionamendua duten beste tatuatzaile batzuk?**

Bai, Bartzelona ingurukoak, bollerak, transak, tatuajearen mundu militante horretan asko ibiltzen direnak, eta batez ere kolektiboko jendearekin lan egiten dutenak. Oso interesgarria izan zen, esperientziak konpartitzeko eta errealitate ezberdinak ezagutzeko.

**Zaila da bizibidea ateratzea tatuatzaile gisa?**

Beste diru iturri batzuk izaten saiatu naiz, pasio hori ez galtzeko edo izan daiteke pasio hori galtzeko beldurrez. Tatuajeak nire behar ekonomikoetan pisu gehiago hartu duenean, esentzia hori pixka bat galdu egin duela sentitu izan dut. Kontraesanak izan ditut eta orain-

Eztiago Industrialdea 21, HERNANI 943 55 25 12 - 16  
info@talleresmitxelena.eus www.talleresmitxelena.eus



## Agur Artsakh, agur Armenia?

**S**tepanakert-en, Karabakh Garaiko hiriburuan, ikusi ditugun irudiak herri fantasma batenak dira: kaleak hutsik daude, armeniar biztanleek presaka abandonatu dituzten objektuak bakarrik topa daitezke botata. Hiriburu ez ezik, ia eskualde osoa armeniarrez hustuta geratu da, herritar gehienek Azerbaijaneko armadaren etorrera eta okupazioa gertatu aurretik ihes egin dute, errepresioa, umiliazioa edota asimilazioa pairatu aurretik.

Artsakh-eko Errepublikak autoaldarrikatua desagertu da. Azerbaijanek 24 orduko erasoaldia nahikoa izan du armeniarren errendizioa lortzeko. Stepanakerteko agintariak oso ahulduta zeuden 2020ko gerra galdu ondoren, baina, zalantzarik gabe, azken ezpatakadak izan dira azeriar blokeoak eragindako krisi humanitarioa eta Armeniako Errepublikaren abandonua.

Nikol Paxinian, Armeniako lehen ministroa, 2018an iritsi zen boterera *Koloretako iraultzak* lagundurik. Bere programaren oinarria herrialdearen modernizazioa eta garapen ekonomikoa ziren, eta horretarako Mendebaldera gerturatu, demokrazia liberala sustatu eta neoliberalismoa hauspotu nahi zituen. Bere etsaia, eta ordura arte boterean egon zena, Karabakh Garaiko politikarien klana zen. Joera ideologiko nazionalista sozial kontserbadorea dute eta geopolitikoki Artsakh Errepublika defendatzea eta Errusiarekin ententea mantentzea lehenesten dute.

Zaila da ulertzea nola ez duen Armeniak posizio indartsuagoa zuenean negoziatu Karabakh Garaia Azerbaijanen kontrolpera itzultzea

Paxinianek boterea hartu zuenetik helburu nagusienetako bat izan du Armeniako bizitza politiko eta ekonomikotik Karabakh Klanaren eragina ezabatzea. Karabakh Garaiko gatazka amaiarazteak onura asko ekar diezazkiokeen Paxinianen estrategia politikoari. Alde batetik, epe ertainean Karabakh Klana asko ahuldu liteke Artsakh Errepublikaren desagertpenagatik eta, bestaldetik, errusiar aingura askatu eta Mendebaldera gerturatzeke abagunea irekiko litzateke.

Horri guztiari eransten badiogu Azerbaijanek geroz eta nagusitasun ekonomikoa, militar eta demografikoa handiagoak dituela, zentzuzkoak dirudite urte hasieran Paxinianek egin zituen adierazpenek, esanez Armenia prest zegoela onartzeko Karabakh Garaia Azerbaijaneko Estatuko lurra zela. Baina beranduegi zen. Erevani erreialismo politikoa falta izan zaio. Zaila da ulertzea nola ez



ASIER BLAS MENDOZA  
EHU-KO IRAKASLEA

duen Armeniak posizio indartsuagoa zuenean negoziatu Karabakh Garaia Azerbaijanen kontrolpera itzultzea, autonomiaren eta armeniarrentzako segurtasunaren truke. 2020ko gerra hasieran Paxinianek eskualdearen entrega negoziatu izan balu, milaka gazteren bizitza salbatuko zukeen eta seguruenik armeniarrek autonomia izango lukete. Ondoren, beste aukera bat izan zuten gerra amaitzeko elkarrizketetan, baina ez zuten entrega negoziatu autonomiaren truke eta azkenik, 2023an, negoziaketarik gabe Azerbaijanek Karabakh Garai osoa irentsi du.

Baina hor ez da amaitzen arazoa. Bakuk eta Ankarak gehiago nahi dute, Armeniako hegoaldean lurralde turkiarrak Istanbuletik Bakura (*de facto* Kaspiar Itsaso bidez Asia Zentrala arte) konektatuko dituen korridore bat nahi dute. Horretan guztian Turkia da irabazle nagusietako bat, Azerbaijan Kaspiar itsasoko eta Asia Zentraleko lehengaien botilara sarbidea duen kortxo baina. Horregatik, Mendebaldea ere oso interesatua dago, eta beraz, nahiz eta Armenia eta NATOren arteko balizko ezteiak egon, ez dira nahikoa izango Azerbaijanen eta Turkiaren proiektu irredentistei aurre egiteko.

Potentzia handien arteko lehiaren itzulerak bazterrak gehiago nahastuko ditu Kaukason, horregatik, Armeniako Estatuak bizirik jarraitu nahi badu, Erevanek hobe du Tbilisiko egungo agintari politikoen kanpo-politika pragmatikoa-gotik ikasi. ●


# Ez adiorik, 'Mixu'



BEA SALABERRI  
IRAKASLEA

**A**itzineko hil amaieran joan zen gure artetik Mixel Oronoz apaiz-langile eta euskaltzalea. Berak nahi bezala joan zen oin puntetan, diskretuki, ez zuen dohaike gorapamenik nahi izan, alta ontsa merezituak zituzkeelarik.

Batzuek gogoan izanen dugu, euskararen alde zuen engaiamenduarengatik. Baigorriko semea zen Oronoz, kasik mendea zeharkatu zuen eta tarte horretan Ipar Euskal Herriaren bilakaeraren lekuko ez ezik, aktore ere izan zen, doi bat egun hauetan zabaltzen ari den *Bizkarsoro* filmak kontatzen duen historian zeharko ibiltaria. Gaztetatik euskarari lotua, aspaldian ohartua zen euskararen beherakadaz. Euskal Pizkundetik landa, 2000. urte inguruan, Euskal Konfederazioaren kide sortzaile eta nekazetza oroituko duzue segur aski, biltzar orotakoa, manifestaldi guztietakoa, euskalgintzako larritasunen bozeramaile ohikoa. Ene belaunaldikoek orduan zuketan ezagutu. Garai hartan ezagutu genuenek, pertsona isila eta arretatsua preziatu genuen. Nahiz eta helduagoa, jakintsuagoa edo gaituagoa izan eztabaidetan hitza hartzeko, ardura besteen erranen entzuten egoten zen, besteek errana ulertu eta bere egiteko gisan. Bizkitartean, ez zen baitezpada pertsona arrunt isila, hitza hartzen zuegan baitzekien, ozenegi sekulan aritu gabe, erran beharrekoaren adierazten



PAULA ESTÉVEZ

hastetik buru eta solaskideen arreta atxikiz, horiek edozein izanik ere, ministerioetako ordezkari, hautetsi ala gaitz-erraille. Kartsu zebilen, zela Konfederazio sortu berriaren bultzatzen, zela hizkuntz politika publikoaren oinarriak sustatzen. Politika hori bera akuilatzen ibili zen gero, indarrak eman zion bitartean.

Batzuek haren liburuak irakurriak izanen ditugu. Entsegu eta eleberriak utzi dizkigu, baita artikulu parrasta ere, oroimen eta bilakaera baten lekukoak anitzetan, maiz ere, eduki politikokoak, zer pentsatua eman dezaketanak, betiere hitz doituz eta argiz emanak. Haren kultura, esperientzia eta jakitateen lekukoak eta aldi berean beti geroari begira ikasgai zenbait dakartenak dira.

Batzuek apaiza oroituko dute. Umila eta ez epailea, ernea eta irekia. Bazuen

aspaldi ez zuela loturarik elizarekin eta hainbat lekutan aipatu izan zuen Aillet apezpikuaren eta elizatiar integristekin hartua zuen distantzia, haren urratsen libertatea segurtatuz bide beretik. Apaizen kasta leherrarazi behar zela zioen, eta kezkatua agertu zen eliza hartzen ari zen eskuin muturreko norabideaz. Horiez gain, elizak baztertu jendeen alde egin izan zuen Oronozek, homosexualen alde, lan eginen luketen eta ezkonduko lirartekeen apaizen alde, elizak baztertu alde... Posizio horiek, Oronoz, jendei bizkarra ematea gustatzen ez zitzaion apaiza, Baionako elizbarrutitik kanporatua izatea eragin zuten.

Orokorki gogoan atxikiko dugu tipien alde aritu zen langile-apeza. Euskaldunen alde, noski, baina baztertuak ziren guztien alde ere. Harritzekoa bazen ere, zenbaitzuek *Mixu* deitzen zuten, berdin herritar eta ezagunek, edozein adineta-koek, apaiza eta adinekoa izateko errespetu gutxiko izen goitia iduri lukeena; hark berak ez zuen horrekin neholako arazorik, eta kasik gogo oraino biziagoarekin eskaintzen zuen orduan atentzia. Hurbiltasun handiarekin.

Zela besteen laguntzeko, zela euskararen zerbitzuko, zela memoria mailako lanetan, pertsona eskuzabal eta apal gisa zebilen beti. Eta halaxe joan zen, bizi izan zen bezala, diskretuki, oin puntetan.

Ez adiorik, *Mixu*. ●



**MAIALEN ARTEAGA**  
KAZETARIA

## Handia

**E**uskal Herriak aurrera egin nahi du. Euskal Herriko agenda soziopolitiko-a begiratu besterik ez dago herri honek zein norabidetan arraun egiten duen jakiteko. Bost urteko prozesu luze baten ostean, joan den irailaren 30ean atxilotu zituzten azkenik Aitor eta Galder gazte militantek. Zahar usaina zerrien irudiak utzi zizkigun egun hark, eta bi lagun falta ditugu orain txalupan arraunean. Gure herriaren ziabogan irudi batzuek lekurik ez izatea nahiko genukeen arren, oraindik ere milaka triki-mailu eta egitura dituzte aurrera egiteko gure nahi kolektiboa oztopatzeko. Irudi gogorak utzi zizkigun irailaren 30ak, bai, baina norabidean eta egiten ari garen horretan berresteko beste hainbat argazki ere bai. Irudi itxaropentsu horiek ez dira ezerezetik, bat-batean, sortutako eztanda baten ondorio. Su txikitant, epeletan, arnasa eta begirada luzez ondutakoaren erakusle dira.

Ikasturte politikoa hasi besterik ez da egin, eta irailak dagoeneko titular ugari utzi dizkigu. Eleaniztasuna mehatxutzat duen kongresu bat, estatu plurinazionalaren argazkiarekin ezikusiarrena egiten ari den eskuineko mugimendua... Baina Madrileko aulkietatik haratago ere bada berotzen ari den taupada bat, gainontzeko gutxian irradiatzen duena. Datozen

hilabeteen errebaso txiki bat: urriaren 13tik 15era Euskal Herriko neska\* gazteak Usurbilen bilduko gara ikasturteko erronkak zehaztu eta Greba Feminista Orokorra gure subjektu politikotik irakurtzeko. Urriaren 25ean, greba egunak izango ditugu Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako administrazio publikoan. Azaroaren 4an Euskalgintzaren Kontseiluak mobilizazioa deitu du euskaldunok jasaten ari garen oldarraldiari erantzun sendo bat emateko. Hortik bi astera, azaroaren 18an, Bilboko kaleak beteko ditugu berriro ezikusiarrenak egiten ari diren horiei Euskal Herria nazio bat dela erakusteko. Eta hilabete bukaeran, azaroaren 30ean, zaintza sistema publiko eta komunitarioa ardatz izango duen Greba Feminista Orokorra izango dugu Euskal Herrian. Horiek guztiak bi hilabeteetako hitzordu batzuk baino ez dira, beste hainbeste izango ditugu tokian toki.

Sentsazioa daukat batzuetan egunero koaren inertziak ez digula astirik ematen burua altxatu eta loratzen ari garenari erreparatzeko. Bada oraindik herri hau txikia dela dioenik, baina herri baten handitasuna kilometro karratuetan baino, beste neurgailu batzuen arabera neurtuko bagenu, gure herriaren adjektiboa bestelakoa litzateke. Handia da aurrera begira dabilen Euskal Herria. ●



**ARANTZA GUTIERREZ**  
EHU-KO IRAKASLEA

## Iruzurtiaren sindromea

**M**erezi ez duzun tokian zaude-la; zure lorpenetan zoriak tartea handia duela edo ez duzula maila ematen... Halako bizipenak daude iruzurtiaren sindromearen atzetik. Eta emakumeok pairatzen dugu neurri handi batean, baita unibertsitateko ikasgeletan ere. Hori da irakurri berri dudan ikerketa-lan baten ondorioa.

Ez nago ados, ordea, ikasgeletan emakumezkoen parte-hartze txikiagoak, tartea laburragoan hitz egiteak edo "ustedut", "nire iritzia da" eta halakoek segurtasun falta adierazten dutenik, sozializatze prozesuan herentzia moduan jaso dugun besteekiko begirunea eta elkarla-

neko komunikazioaren ondorioak direla baizik. Zalantza, beldurra edo, okerrago, ahuleziaren irakurketak soilik begirada androzentriko batetik azaltzen dira. Eta guk, emakumeok, barneratu ditugu.

Horregatik, lankide batek esan zidanean emakumeen parte-hartzea bultzatu asmoz, gelan hitz egitera publikoki gonbidatzen zituela, erantzun nion horrekin haiengan presioa areagotzen zuela, urduritasunari, irakaslearen espektatibei ez erantzuteko beldurra gehitzen baitzitzaion. Horren orde, irakaslearen ardura da errefortzu positiboko neurriak hartzea, guk baitakigu iruzurra ez dela haiena. ●

# Billabesan



**INMA ERREA**  
IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

**B**adakit batzuek gorrotatzen dutela garraio kolektiboa, nahiago dutela beraien autoa gidatuz mugitzea, baina nik plazer hartzen dut autobus edo tren bat hartu behar dudanean.

Iruñerriko autobusean ibiltzea, billabesan, beti gustatu izan zait. Bidaia batek irauten duen epean -10-15 minutu, gehienez 20-, mundu oso bat hedatzen da begien aitzinean: askotariko jendea, askotariko aurpegierak eta hizkerak, denetarik adinak eta jiteak, portaerak eta aldarteak, eta haur txikien bizitasun nekaezina, batera eta bestera begiratzen tematurik ea helduren batek kasu egiten dien... Eta egungo joera unibertsala: nor bere mugikorrari so, edo autobusaz haragoko norbaitekin ele-melean (musika huts bihurtuta, hizkuntza ulertzerik ez dudanean).

Hirian barna billabesan joateak jende ezezagun eta askotarikoarekin lotzen nau, arinki bada ere, eta horrek jendeago bihurtzen nau, pertsonago, eta, gainera, jakin-mina asetzen dit giza izaerari buruz.

Autobus bat laborategi soziologiko bikaina baita. Bertan hauteman daiteke, supermerkatuan bezala, nola jokatz

Hirian barna billabesan joateak jende ezezagun eta askotarikoarekin lotzen nau, arinki bada ere, eta horrek jendeago bihurtzen nau, eta gainera, jakin-mina asetzen dit giza izaerari buruz

dugun bizitzan, nola moldatzen garen besteekin: ordena gordetzen dugun autobusera igotzean (Iruñerrian fama dugu: ilararik ez, eta geralekura azken iristen direnak lehenak sartzen dira ibilgailura); noren ondoan esertzen garen (emakumeak emakumeen ondoan, edo gazteak gazteekin...); pasabidea-

ren ondoko eserlekuan jartzen garen, leihatilaren aldekoa hutsik utzita (nolabait adierazi nahian inor ez dugula nahi ondoan?), edo ausartzen garen hala jokatz duenari tokia guri egiteko eskatzen...

Berez, autobusean joateko erabaki hutsak asko dio gutaz: jende frankok baitezpada hartzen du autobusa -ikasleek, etorkin-emakume-langileek, adineko jendeak...-, baina garraio kolektiboaren defendatzaile teoriko anitzek ez dute inoiz autobusa hartzen. Ezta esperimentu gisa ere.

Eta kanpoaldera, jendeari eta paisaiari, begiratzeaz gain, autobusez bidaiatzean badugu aukera barnerantz ere so egiteko, geure baitara. Norberaren kontraesanak arakatzeko, gure uste eta iritzietan ustelak eta urreak begiztatzeko: distantzia neurtzeko, adibidez, adimenaren arragoan jasotako ideia berdinzaleen eta gure gorputza habia duten arbuio-izu-mesfidantzen artean, jakiteko tartea luze edo labur doan, harrotzen gaituen ideologiatik gorputzean hezurmamitutako konbenzimenduetara.

Hori guztia billabesan, merke samar. ●


# BURU JABETZAK

## Jardunaldiak

eman  
izena!

Urriak  
19-20-21

burujabetzak.jardunaldiak.eus



euskara  
bildua

#12

# Utopiatik egunerokora

Google gabe, aukera burujabeak badira

San Telmo museoan  
Urriaren 26an  
09:00etan



Izena eman [www.euskarabildua.eus-en](http://www.euskarabildua.eus-en)



# EMAKUME BASERRITARRAK, FUNTSEZKOAK BEZAIN AHAZTUAK

Baserritar bat abereak gobernatzen edo traktorea gidatzen irudikatu beharko bagenu, ziurrenik gizon heldu bat imajinatuko genuke. Erreportaje honetarako elkarrizketatu ditugun baserritarrek, ordea, erakutsi digute iruditeria folkloriko horren atzean badaudela landa eremutik bizitzeko hamaika modu, aitortzarik jasotzen ez dutenak. Gogorarazi digute badaudela emakume baserritarrak, urteetan baserrien sostengu izan direnak eta herritarrei jaten eman dietenak, baina senarraren, semearen, nebaren edo dena delako gizonaren itzalean utzi dituztenak. Urriaren 15ean ospatzen da landa eremuko emakumeen nazioarteko eguna, eta nabarmendu dutenez, zer ospatuaz gain, badute zer borrokatu.

**E**goera irauli ez bada ere, emakume baserritarren eskubideetan emandako pausoak argi ikusi daitezke, eta horren arrazoietako bat da 1990eko hamarkadan lehen sektoreko emakumeak saretzen eta ahotsa altxatzen hasi zirela. Bakar-dadean bizi zutena elkartrukatu zuten, eta sindikatuekin batera gutxieneko eskubideak bermatzeko exijitu zuten. 1990eko hamarkada arte emakume batek ezin zuen baserriko titulartasun partekaturik eskatu, eta Gizarte Segurantzaren alta emateko oztopoak zituzten 2000. urtean ere. “Kontuan hartu behar dugu Berdintasun Legea 2007an sortu zela, ez gara Francoren garaiaz hitz egiten ari”, ohar-tarazi du Alazne Intxauspe Elolak (Andoain-Iurreta, 1984), EHNE Bizkaia sindikatuko eta Etxaldeko Emakumeak elkarteko kideak.

Baina zer dakar titulartasun konpartitua izateak edo Gizarte Segurantzaren kotizatzeak? “Langile nortasuna ematen du eta eskubideak lortzeko ezinbestekoa da. Horri lotuta doaz dirulaguntzak, erakundeetan parte hartzeko eskubidea eta abar”, argitu du Maitte Aristegi Larrañagak (Bergara, 1962). EHNE sindikatuan aritu zen emakume baserritarren oinarriko eskubideak lortzeko borroka-

ren hastapenetan, eta gogoratu du “egoera oso latzak” ikusten zituztela. Bizitza osoan baserrian lanean ari ziren emakumeak batere eskubiderik gabe egotea, esaterako. Horixe izan omen zen baserriko emakumeak antolatzen hasteko arrazoi nagusietako bat: “Legea berez oso eskasa zen, emakumeon eskubideon aurkakoa, argi eta garbi, baina aplikazioa ere matxista zen kasu gehienetan, oztopoak izugarriak ziren”. Kasurik gogorrenak oroitzen ditu Aristegik, besteak beste, alarguntzen edo banatzen baziren inolako babes eta eskubiderik gabe geratzen ziren emakumeenak.

## LEGEAK, GARATU GABE

Egoera apur bat hobetu dela onartzen du Aristegik, baina Intxauspek kritikoki begiratzen dio aldaketari. Haren arabera, 2011n sortu zen titulartasunaren legea ez da batere garatu, eta ezjakintasuna eta informazio falta dute bai baserriko bai administrazioko langileek. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako andreei eragiten dien Emakume Nekazarien Estatutua (ENE) aho batez onartu zuen Legebiltzarrak 2015ean, emakume baserritarren azken urteetako borrokari esker lortu zutena, baina, Intxauspek gogorarazi duenez, paperean ge-





ratu da, fruiturik eman gabe. Ideia bera jasotzen du Leire Milikua Larramendik (Abadiño, 1985) Lisipe bildumako *Lur gainean, itzal azpian. Emakume nekazariak eta parte hartzea* liburuan: “Sentipen orokortua da ez dela egon eta ez dagoela ENEren edukia lantzeko, zabalteko eta hedatzeko interesik”.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren kasuan, 1980an izan zuten lehen estatutua, “lanetan parte hartzen duen bikotekide” gisa aitortzen zituena etxaldeko emazteak. 2010ean lortu zuten bikoteen estatus-berdintasuna, GAEC (*Groupement agricole d'exploitation en commun*) elkarte formula sortutakoan. Datu esanguratsu gehiago azalerazi dituzte Lurramako antolatzaileek: emazte laborariak 2008ra arte itxoin behar izan zuten langileen erregimen orokorreko amatasun baimen bera lortzeko. Azaroaren 10etik 12ra antolatu dute aurretiko Lurrama, *Emazte laborariak argitan* lemapean, hain zuzen ere, emakume baserritarrei aitortza egiteko eta haien eskubideez jarduteko.

Eskubideak eskubide, titulartasun konpartitua lortzeko muga batzuk daude, ezkondata egotea edo izateko bikote izatea beharrezkoa da, esaterako. Intxauspek azaldu du ez diela inork argitu titulartasun partekatua abantailak dituen ala ez, eta zailtasunak saihesteko bide berriak bilatzen ari dira: “Hemen emakume gehienak hasi gara sozietat-

## Alarguntzen edo banatzen ziren emakumeak inolako babes eta eskubiderik gabe geratzen ziren

te zibilak sortzen edo errazagoak diren beste formula batzuk erabiltzen”. Titulartasunaren auzian egon den beste arazo bat azpimarratu du: batzuetan etxalde bateko titularkidea den andreak ez du bertan lan egiten, edo ez du lehen sektorearekin loturirik ere, baina dirulaguntzak lortzeko baliatzen dute, nahiz eta onuradunak ez izan proiektuan benetan diharduten emakumeak. Legea garatzeko eta erregulatzeko urrats asko egin behar direla nabarmendu du Intxauspek: “Ez da laguntza nahikorik ematen tramitazio horiek ahalbidetzeko, eta 60 urteko emakume batentzat telematikoki egitea ez da errazena. Historikoki egon den diskriminazio hori oraindik ere badago”.

Hortaz, egun ere adineko emakumeak dira kaltetuenak, eta urteetan egindako lanagatik ia ordainik jasotzen ez dute-

nak. Izan ere, aurreko legeak zuten beste eragozpenetako bat zen ez zituela kontuan hartzen normalki emakumeek egiten zituzten lanak, adibidez, produktuen eraldaketa edota salmenta. Baserritar emakumeen figura gizonen itzalean eta “familia-laguntzailearena” bezala ipintzen dela azaltzen du Milikuak, aipatutako liburuan: “Familia-laguntza’ figuraren bitartez, emakume horien eta haien lanaren ikusezintasuna formal eta normalizatua izan da”. Are gehiago, baratze eta animalien kargu dena gizona edo emakumea izan, baserritarra kontsideratzen da edo ez. Lan berbera eginda, aitortza desberdina da. Aristegik azaldu duenez, baserriko emakumeenganako begirune eta errekonozimendu “oso-oso apal” hori ez da soilik Euskal Herriko kontua. Ziurtatu duenez, egoera ez da hobeia Europan, zenbait herrialdeetako ordezkariekin egindako bileretan ikusi duenez.

Europan izandako bilkura horietako bat izan zen Via Campesina nazioarteko baserritarren koordinadorak *elikadura burujabetza* kontzeptua sortu zueneko, 1990eko urteetan; bertan izan zen Aristegi, euskal herritarren ordezkari gisa. Elikadura burujabetzaren ideia funtsezkoa bihurtu da egungo baserritar zein herritar askorentzat, eta urriaren 16a borroka hori gogorarazteko baliatzen dute urtero. Intxauspek argitu du Etxaldeko Emakumeentzat berebiziko



garrantzia duela egun horrek, eta Via Campesinaren lana goraiatu du, mugimendu hori baitago horren atzean.

### AUZOLANA, GAINEZKA EZ EGITEKO

Egoera gertutik ezagutzeko, Garaiko (Bizkaia) Etxeita baserrian elkartu gara Etxaldeko Emakumeekin, baita Via Campesinaren bitartez Mozambiketiko etorritako emakume laborari talde batekin ere. Auzolana deitu dute Etxeitan: “Aurten sagar asko dago eta Anitak, gure kideak, laguntza behar du sagar zukua egiteko. Animatzen zara?”, iragarri dute. Goizean goizetik euria barra-barra ari duen arren, auzolanak aurrera jarraitzen duela ziurtatu dute antolatzaileek: “Mantsoago joango gara, baina bagoaz”. Ana de la Maza Llaguno (Algorta-Garai, 1991) duela lau urte hasitako Garai Kontserbak proiektuko kidea da, eta lehen aldia du auzolan batean; aurrekoetan, egin-beharrak arintzeko gertukoak laguntza izan du. Ordea, iazko urriko proiektuak gainezka egin zion: “Uste dut izan zela administrazioetatik daukagun babes eta errekonozimendu faltagatik, eta gu bakarrik gabiltzalako denarekin borrokan. Iaz gainezka egin nuen, lana ez da amaitzen, maiatzetik zabilta oso topera lan egiten...”. Une horretan jo zuen EHNEk antolatutako eskola agrofeministetan parte hartzera, eta nahiz eta bi haur izanda zail egin zitzaion denbora aurkitzea, “merezi



Ana de la Maza, Algortan jaioa da, baina 20 urterekin Garaiko baserri batera lekualdatu zen. Garai Kontserbak proiektua martxan du duela lau urtetik.

Baratze eta animalien kargu dena gizona edo emakumea izan, baserritarra kontsideratzen da edo ez. Lan berbera eginda, aitortza desberdina da

izan zuen”. “Tailerrak asko mugitu ninduen. Babesa sentitu nuen, zaintzarako eta hitz egiteko gela zen”.

Orduetik saretuta dago Etxaldeko Emakumeekin, eta auzolanean dabiltzan hamar bat lagunei sagar zukua erortzen ez zaiela ziurtatzeko zeharka begiratzeko dien bitartean, berretsi du aldaketa izugarria izan dela. “Sekulako indar hartzea izan da; elkarrekin borrokatzea eta hausnartzea oso polita izan daiteke. Euskal Herrian daukagun baserri gehienetan eredia familiarra da, eta zure lanetan sartzen zara eta azkenean bakarrik zaude, betiko jendearekin eta zure sektorekoekin. Saretutakoan, arazoa ia berdina edukitzen ditugula kontura-

tzen zara, eta norbere proiektuan baina aldi berean globalean pentsatzen duzu". Hain globalean, ezen, Mozambiketiko ere etorri baitira De la Mazaren proiektua ezagutzera, eta nahiz eta dena pilatu zaion egun berean eta iritsi ezinik ibili den, Via Campesinako sustatutako *Nekazaritiko nekazarira* ekimena bezalakoak oso aberasgarriak direla deritzo.

Azpitarratu du Via Campesina dela nazioartean antolatuta dagoen tamaina horretako mugimendu bakarra: "Orain badirudi baserritarrak garena tradizio zaharren eta folkloreak antzezleak, frikiak. Baina baserritarrak gara janaria egiten dugunak, hori da gure lana! Janaria behar dugu bizirauteko, oinarria da!". Etxaldeko Emakumeek argi dute zein den oinarri horren eredu: agroekologikoa. "Lehen sektoreak iraungo badu izango da txikian eta agroekologikoan. Alegia, lurra zainduz gizartea zaintzea. Eredu infinitua dela esaten da, prozesuen prozesua, eta beti hobekuntzak bilatzen dituen lurrarentzat eta gizartearentzat". Intxauspek ere bat egin du De la Mazarekin, eta kritikatu du administrazioek eredu industrial bultzatzen dutela, agroekologian dihardutenei entzungor eginda: "Guretzat bi sos daude eta nahi dute horrekin gu konforme geratzea. Nekazaritza ereduaren aldeko hausnarketa ezinbestekoa da. Ahaztu haragi sintetiko eta tomate hidroponikoak. Eredu jasangarri baten aldeko benetako apustua egin, eta balio batzuk adostu", mintzatu zaie agintariei.

Bien esanetan, erakundeek oztopoak besterik ez dituzte jartzen, eta lana erraztu ordez neketsuago bilakatzen dute: "Nik uste dut aspalditik mezu garbia ematen dugula, alegia, guk uste dugula badakigula nondik joan behar den, baina Mixel Berhokoirigoinek beti esaten zuen bezala, arazoa ez da teknikoa, arazoa politikoa da". Sakoneko aldaketen beharra mahai gainean jarri dute, eta horrek ekarriko luke gizartea eta sistema bera ere aldatzea.

De la Mazak gertutik atzeman ditu nekazaritza ereduak izan dituen aldaketak. Goi mailako ikasketak eginda, hiririk landara joan zen duela hamar urte, baserrian bertan jaiotako bere bikotekidearen familiarengana: "Ikusi dut zelan jaio zirenean zetozen eredu agroekologikotik; orain hitza jartzen diogu, baina lehen ere praktika horixe zen: euren ama soroa lantzen bai gariarekin bai fruta eta barazkiekin, eta animalia apurtxo batekin". Oroitarazi du eredu



**LURRAMA.** Azaroaren 10etik 12ra izango da aurtengo Lurrama, eta Emazte laborariak argitan izango da lema, haiengan fokua jartzeko asmoz.

“Etxe honetan nire borroka izan da nik ere traktorea erabiltzea eta eurek beldurra galtzea”

### ANA DE LA MAZA

agroindustrialia 1990eko hamarraldian Europatik bultzatu zutela, eta txikian eta salmenta zuzenaren bidez funtzionatzen zutenak "pobre, ezjakin eta ez profesional" gisa tratatzen zituztela.

Orain, De la Mazari esaten diotenean belarrak kimikoekin erre behar dituela, "betidanik hala egin delako", galdetzen die ea beren amak nola egiten zuen, "betidanik" hori uste baino berriagoa baita. Amonen moduekin berriro konektatu behar dela dio, egungo eredu industrialia ez baita bideragarria. Hori bai, erreminta modernoagoekin eta argindarrarekin, prozesua samurtzeko. Bere baserriko eredu jarri du adibidez: "Gaur sagar zukua egin ostean geratutako soberakinekin nire behiak elikatuko dira egun batzuetan, eta behien kaka hori orturako erabiliko dut; ez dut hondakinik sortzen eta ez dut ongarririk ekartzen ez dakit nondik". Zikloa betetzen da horrela.

### EMAKUME BASERRITARRAK, ZAINZAILA

Hiritik baserrira egindako saltoan De la Mazak sektore maskulinizatuaren ondorioak jasan zituen, eta gaur egun ere desberdintasunak daudela dio. Hasieratik ekin zion etxaldeko zenbait lan egiteari, baina genero rola direla eta, kosta egin zitzaion familiak onartzea, esaterako, emakumea izanda ere traktorea erabili zezakeela. "Etxe honetan nire borroka izan da lortzea nik ere makinaria hori erabiltzea eta eurek beldurra galtzea, zeren euren imaginarioan emakumeak arriskutsuagoak gara traktore batean". Ikuspegi feminista lehen sektorean ere txertatzea ezinbestekotzat jotzen dute antolatuta dauden emakume nekazariak, eta alderantziz, lehen sektorea mugimendu feministan txertatzea ere bai. De la Mazak puntu garrantzitsu bat zehaztu du, Milikuak liburuan ere xehatzen duena: "Baserritarrak gara, baina landa eremukoak ere bai". Administrazioen politiken ondorioz landa eremuko emakumeak "hirietatik oso baztertuta" daudela salatu du, Garaiko adibidea emanez: "Hemen ez daukagu inongo zerbitzurik, ez daukagu garraio publikorik, ez medikurik, ez dendarik, ez umeak zaintzeko zerbitzurik, hirien menpe gaude".

Intxauspek erakundeek eskatu die landa eremuan irakurketa feminista egiteko eta zaintza ere erdigunean jartzeko. Hain zuzen, azaroaren 30eko greba feminista orokorrak zaintza sistema iraultzeko eskatuko du, eta emakume nekazariak berretsi dute badutela zaintzaren inguruan zer aldarrikatu. De la



**VIA CAMPESINA.** Mozambikoko nekazari talde bat Garai Kontserbak proiektua ezagutzen izan da, Via Campesina mugimenduaren bitartez, Etxaldeko Emakumeekin batera. Ezkerrean makurtuta, Alazne Intxauspe.

Mazak kritikatu duenez, landa eremu-ko emakumeei hirikoei baino inplikazio handiagoa eskatzen zaie zaintza eta erreproduktzio lanetan, besteak beste, autoaren menpe egoteak eta haurrak hara eta hona eramateko denbora luzeagoa behar izateak jarduna zailtzen baitie. Era berean, uste du norbere burua zaintzearen eta lan eta deskantsu tarteari zehaztearen gainean gogoeta handiagoa egiteke dagoela, eta argi dauka zaintza lanen banaketa orekatzeko dela bidea. “Baserriko lan bat egin behar dudanean, esaten dute ‘umeekin zer egingo duzu?’ Umeekin aita daukate!”. Milikuak liburuan jasotzen duenez, zaintza lanen ardura emakumeengan egoteak eragozten du haiek erabakiguneetan edo bileretan egotea, hau da, parte hartzea sustatzeko traba izan ohi da gizonen familiaren edota etxearen ardura beren gain ez hartzea.

“Ezin da zaintza sistema ulertu bizitzaren zaintza ulertu gabe: haziak, lurra, animaliak... jaten duguna”

## ALAZNE INTXAUSPE

Esanak esan, emakume baserri-  
ren errebindikazio nagusia zera izango

da azaroaren 30ean: “Ezin dela zaintza sistema ulertu bizitzaren zaintza ulertu gabe: haziak, lurra, animaliak... jaten duguna. Zaintza hori guztia gabe ezin dela bizirik iraun”, laburbildu du Intxauspek. Gizartearen zaintza nekazarien eskuetan dagoela nabarmendu dute, eta De la Mazak politikariei erantzukizuna eskatu die: “Hasi zaintzen lehen sektorea, hasi eredu agroekologikoaren alde egiten. Badakite eredu industrialia ez dela batere bideragarria, baina halere ez dute atzera egiten”.

Greba feministan, baserriko eta familiarako lanen artean denbora bilatuko dute euren aldarrikapenak kalera eramateko. “Emakume baserriarrak oso gutxi gara, baina hemen gaude, esateko lehen sektorean aldaketa bat ematen bada izango dela emakumeon zaintzatik egindakoa”, garbi du De la Mazak. Bere iritziz, gizonen jarraitzen dute produktibotasunaren parametroetan pentsatzen, eta emakumeak dira zaintza globalaren gainean sentsibilizatzen hasi direnak.

Mozambikoko emakume laborariek ere euren herrien zaintzarako ideiak hartuta alde egin dute Garaitik, “asko ikasi” dutela jakinarazita: “Guk ez daukagu sagarrak, baizik tamarindoak, laranjak, azukre kanaberak... baina zukuak eta marmeladak egiteko baliagarri zaigu hemengoa”. Urteko sasoi batzuetan elikagai mordo biltzen dute, baina adierazi dutenez, haien erronka nagusia da produktuak botilaratzea eta pasteurizatzea, urte osorako jakiak gordetzeko eta goseari aurre egiteko aukera izan dezaten. Auzolanean, arrastoa utzi diete elkarri hango eta hemengo laborariek. De la Mazak baserrian jarraitu du zuku botilaratzen, lanez gainezka baina indarrez beteta, Mozambikoko nekazariak “*fuera campesina*” esanez egindako agurrek hunkituta eta auzolaneko emakumeen laguntzak babestuta. ●




Uxue Alberdi  
Begoña Durruty

# BELARRIKO KILKERRA

Ahozkoak idatzira ekarritako istorioak; ahotsa begira; belarrikoa paperera.

**elkar**  
www.elkarargitaletxea.eus



“ ”

*“Guk, artzain bezala, bizi ditugun kezka, poz eta errealitateen lekukotasuna jaso dut liburuan”*

**Josebe Blanco Alvarez**

*Hausnarrean. Ardiek egin naute artzain liburua*

Mendian, autoz kaletik orduerdira bizi den emakume artzain euskaldun-galegoaren eguneroko bizitzan nola eragiten dute gaurko munduan pil-pilean dauden gaiak? Klima larrialdia, berdez pintatutako kapitalismoa, basogintza, migrazioa, prekaritatea, begano mugimendua, elikadura sistema...

Josebe Blancok artzainaren egunerokoan jaso du urtebeteko gertakarien leku-

kotasuna. Prosaz eta poesiaz, lehen pertsonan, eta lehen lerrotik: naturarekin, beste izaki bizidunekin eta pertsonekin errespetuzkoa den bizitzaren aldeko eguneroko borrokatik.

Liburuari buruz elkarrizketatu dugu, hari gisa harremanak hartuta: liburuan eta bizitzan elkarri lotuta dauden askotariko harreman horiek.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**Liburuaren azpitituluan diozu: “Ardiek egin naute artzain”. Nolako harremana duzu ardiekin?**

Nik nire burua artaldearen baitan ikusten dut. Artaldearen muina ardiak dira eta zorte handia dut; artaldean onartua izan naiz. Haiekin ikasi dut haiei buruz dakidana. Bai, noski, formazioak eta bestelakoak jaso ditut, eta Exkerra funtsezkoa izan da bide honetan. Baina funtsean, ardiek egin naute artzain, beste inork ez.

Elkarrekin pasatu ditugun ordu horietan moldatu naute ardiek. Niretzat oso baliagarria izan da ukiulan denbora pasatzea. Lanak bukatu eta “ezertan” ez aritzea, bazter batean eseri eta ardien artean zer gertatzen den ikustea.

**Zer da artzaintzaren muina?**

Izenak berak dio, ardien zaintza. Baina ardien zaintzak atzetik dakar luraren zaintza, mendiarena, bizitzarena... eta pertsonen zaintza. Gu hemen bagaude, pertsona batzuen janaria sortzen dugulako eta pertsona horiek zaintzen ari garelako da.

**Zein intentziorekin idatzi duzu Hausnarrean?**

Idazle Eskolan aritu naiz bi urtez eta ize-na eman nuenerako argi nuen helburua: gure bizimodu honetan bizi ditugun kezka, pozak eta errealitateak mahai gainean jartzea eta horiek abiapuntu izatea nahi duenak hausnarketa egin dezan zenbait gairen inguruan.

Funtsezkoa izan zen Idazle Eskola-ko gelakideen eta Tere Irastorzaren gomendioa. Haiek segituan ikusi zuten eguneroko bat zela modua. Lekukotasun horrek emango ziola indarra gainontzeko guztiari.

**Zure egunerokoan bizitza eta heriotza ageri dira, gordin. Nola ulertzen duzu bi horien arteko harremana?**

Batak bestea dakar ezinbestean. Gu une honetan bizirik baldin bagaude, beste izaki batzuk hil direlako da. Izan daiteke desatsegina, izan daiteke gordina, gogorra... baina halaxe da. Bizitzaren zikloaren baitan heriotza dago.

Horrek ez du esan nahi mingarria ez denik, batzuetan. Eta beste batzuetan,

heriotzak mina arintzeko balio du eta maite duzun horri ezin diozu opa bizitza, hainbesteko sufrimendua ekartzen badio. Eta badakizu atsedenaren eta maitasunaren adierazlea momentu batean labana izango dela.

Arkumeak hiltegitira bidaltzen ditugunean, ni lasaitzen nauena da animalia horiek hilko direla pertsonak behar bezala elikatzeko, pertsonak bizirik jarraitu dezaten, osasuntsu. Topatzen dudakontsolamendu bakarra da bizirik daudenean ahalik eta goxoen bizi daitezela, ahalik hobekien tratatzea. Eta ahalik eta heriotza duinena ematea.

Nire lana arkume horien amak diren ardiak dolua arintzea da, ardia zaintzea alde horretatik.

### **Ardien dolua? Nola lantzen da hori?**

Funtsezkoena komunikazioa da. Bi espezie gara, baina elkarrekin bizi gara eta unibertso bat osatzen dugu. Komunikazioa ez da hitzezkoa bakarrik, komunikatzen dugu begiekin, eskuekin, ahotsaren

tonuarekin... eta ez dakit zergatik, baina sentitzen dut ardiek jasotzen dutela intentzio hori: "Zurekin nago, eskerrik asko, badakit ez dela erraza, baina hala behar du". Hala behar du, hazkuntza infinitua ez delako posible: ezingo genituzke arkume guztiak utzi bizitarako.

Erditzerakoan arkume batzuk hil egiten dira eta egoera horietan ere ardiekin dolua landu behar da. Ardiek momentu jakin batean argi ikusten dute arkumea hil egin dela eta nolabait baztertu egiten dute eta euren bizimodua egiten dute. Baina beste batzuek lotuta jarraitzen dute, garbitu egiten dute gorpua, hankarekin kolpetxoak ematen dizkiote ea altxatzen den... Horrelakoetan nola jokatu? Ohikoa da hildako bildotsa ahalik azkarraren kentzea, pentsatuta ardiari arkumea paretik kenduz gero ahaztu egingo zaiola eta ezer gertatu ez balitz bezala jarraituko duela. Baina ez da hala, ardiarentzat gauza asko gertatu dira... Iparraldeko emakume abeltzainen topaketa batean kontatu zuten artzain batzuek gorpua utzi egiten

zituztela ardiek umea hil zela onartu arte. Geroztik hala egiten dugu. Denbora eman behar zaio.

### **Arbasoekiko harremanaz zer diozu? Liburuan presentzia handia dute amak eta amonak, eta galizierak eta Galiziak.**

Nire ibilbidean, nire erreferenteak beti izan dira amona eta ama: sardea hartzeko edo ardiekin egoteko orduan... eta haiek daude nigan, lehenago beste amona, ama, edo izeba batzuk egon zirelako.

Abeltzaintzatik bazterrean geratu ginen emakumeok mekanizazio iraultza "zoragarri" harekin baina nik oso neure sentitzen dut eta amaren eta amonaren kasuan ere oso haiengan sentitzen nuen abeltzaintza.

Gure etxeko hizkuntza galiziera zen. Ni egiten nauen mundu galegoa jaso nuen, baina ni Euskal Herrian bizi izan naiz beti. Migratzaileei eta haien ondorengoei gertatzen zaiena bizi dut: ez zara bata, ez bestea, hara joaten zara eta ez zara, eta hemen ere antzera...



### Lurrarekiko harremanari erreparatuz, zer ikusten da Pikunieta baserriko leihotik?

Gure etxetik ikusten da desastrea den baso politika bat. Eskerrak naturak bere lanak egiten dituen, eta baditugun txoko eder askoak.

Gure etxetik ikusten diren azpiegitura handien presentziak, momentuz, itzalak baino ez dira. Irimo mendian, Meakan, Oletan, Samiñon, Izazpin, Karakaten... beldurra ematen du sentitzeak zu egiten zaituen paisaia honek utziko diola hau izateari. Eta bere aldaketa horrek zenbateraino aldatuko zaituen. Eta beharbada zure burua erbestean ikusiko duzula, nahiz eta etxean egon. Kezka handia da, zenbait momentutan itotzera heltzen zara.

Ez zait ulergarria egiten ustez naturaren defentsan egin nahi den hori guztia natura bera suntsituz egitea. Nik energia berriztagarriak eta sistema berriztagarriak nahi ditut, jakina, baina ez eskala horretan. Eta ez energia hori gero autopista elektrikoaz Alemaniara garraiatzeko. Nahi nuke baserri bakoitzak edukitzea bere sistema edo sistema komunitario bat, txikitik, eta ahalik eta gutxien puskatuta. Zeren benetan sentitzen baitut ezin dugula metro koadro bat gehiago estali eta artifizializatu. Ez, ze pentsatzen dugu ez dugula inguruarekiko inolako menpekotasunik, baina bizitza dihoakigu horretan.

Oso kezkatuta gaude egoera klimatikoarekin eta horrek ekarri dizkigun aldaketekin. Guk ere antzeman dugu zikloen erritmoa apurtzen ari dela, ezin dela aurreikusitako planifikatu lehen bezala. Eta horrek kezka handia sortzen du: belarrik ez badago ardiek zer jango dute? Eta kanpora erostera joan behar badut zer prezio jarriko didate? Ze hemen belarrik ez badago kanpoan ere ez da egongo... Burua gurpil zoro itogarri horretan sartu dakiguke.

### Liburuan diozu gaztagintza "orekaren artea" dela. Zer lotura dute gaztagintzak eta arteak?

Nekazaritza eta abeltzaintza gogortasunarekin lotu dira beti, eta niri justu kontrakoa iruditzen zait: lurrarekin eta animaliekin lan egitea oso delikatu da, oso detaile txikietan jarri behar da arreta orekak mantentzeko. Zer esanik ez esnetara sartzen zarenean, hori beste itsaso edo unibertso bat da.

Esnetan gauza txiki asko dago eta euren artean komunitate edo unibertso bat osatzen dute. Batera eta bestera egiten dute, eta zu hor sartzen zara eta saiitzen



“ ”

### Abeltzaintza

*gogortasunarekin lotzen da, eta justu kontrakoa da: lurrarekin eta animaliekin lan egitea oso delikatu da*

zara komunitate hori zurera eramaten. Horretarako, komunitate hori limurtu egin behar duzu, eta beste kide batzuk uxatu, zuk nahi duzun gazta hori lortzeko. Gauza guztien gainetik, oso lan delikatu da. Ematen dituzun pauso eta gorputzaren mugimendu bakoitzak dute eragina. Ezin da landa zalapartaka egin, bere erritmoa behar du. Oso konplexua iruditzen zait. Horregatik da artea.

### Elikagaiak sortzen dituenak nola ikusten du etorkizuneko elikadura?

Gure ustezko lehen mundu honetan ahaztu egin zaigu jan gabe hil egiten gara. Guretzat gosea zerbait koiunturala da, ez zaigu burutik pasatzen benetan gosez hiltzera hel gaitezkeenik. Baserriarrok hau gogora ekarri behar dugu, behin eta berriz. Zeren bestela, jate kontuak bihurtzen baita gastronomia, *gourmet*... argazkitik kanpo geratzen da elikadura oinarritzko eskubide bat dela eta ezin dela janariarekin espekulatu.

Hiper teknologizatutako jendarte honetan, bizimodua sinplifikatzen hasi behar dugu. Gaur egun laborategiko ha-

ragia dago, bazterrak txikitzen ari den sojarekin elikatutako animaliak baditugu hemen ere...

Abeltzaina naizen arren, hasi behar dugu pentsatzen ezin dugula hainbeste haragi jan. Ez da posible egunero haragia jatea. Ez da ona ez gure osasunarentzat, ez planetarentzat. Beste neurri batera etorri behar dugu, eta garbantzu gehiago jan, dilistak, babarrunak... eta jaten dugun haragi hori izan dadila benetan lurrari atxikitakoa. Jaten ditugun animaliak izan daitezela euren bizitza, euren izaera, diren hori garatzeko aukera izan dutenak. Bizitza hilik pasatu duen animaliak nola elikatuko gaitu?

Gaur egun ere badago komunitatean jende multzo bat honen kontzientzia duena eta aukeratzen duena azoketara joatea, aukeratzen duena arratsalde batean baserri batera joan eta han erostea barazkiak edo haragia, esnea, gazta... Badaude kontsumo taldeak, kooperatibak hor daude, eta nik uste horri eman behar diogula indarra. Denon artean konfiantza esparru bat sortu behar dugu: lasai joango naiz eta galdetuko dut ez dakidana, eta horrela jakingo dut zerk elikatzen nauen eta konfiantza emango diot pertsona horri, bere begietan ikusten ari naizelako zaindu nahi nauela. Hortik ikusten dut etorkizuna.

### Artzaina eta barazkijalea zara. Azaldu binomio hori...

22 urte nituela utzi nion haragia jateari, neure lau sosak ez nizkielako eman nahi animaliak gaizki tratatzen zituzten pertsona eta enpresei.

Gero pentsatzen hasten zara: agian ez ditut jaten jan beharko nituzkeen barazkiak edo babarrunak, agian ari naiz modu artifizialean eta produktu kimiko askorekin hazitako landareak jaten...

Edo beharbada barazkizko hanburgesak jaten ari naizenean sortzen ari naiz justu haragia jateari utzita saihestu nahi nuena: soja hori guztia egiteko sortu den txikizioa, zenbat pertsonaren sufrimendua dagoen soja horren atzean... Kontraesan handia da. Hasten zara arakatzen eta konturatzen zara enpresa berak eskaintzen dizula haragi ultraprozesatua eta "elikadura berdea" eta "osasuntsua", hau da, merkatu hobi baten barruan bizi zarela. Eta plastiko asko dagoela janari horren bueltan, eta kilometro asko egin dituztela elikagai horiek... eta beharbada pertsona horiek beti ez dutela lana eta bizitza baldintza egokienetan egiten...

Askoz haragi gutxiago jan behar dugu, baina jaten duguna jaten dugula, izan barazkia edo izan animalia, beste kontu horiei erreparatu behar diegu. Ezagutu ze eskuk jaso duten, nola, zer bizimodu daukan, zergatik egiten duen lan modu horretan eta ez bestean... Behin Iparraldeko lagun bati entzun nion "agroekologia ala basakeria". Hau da dagoena.

**Zer harreman duzu bakardadearekin?** Handia! Lanordu batzuk joaten zaizkigu bakardadean. Ukuiluan ez naiz bakarrik sentitzen, beti nago konpainian, ehundik gora buru ditut bueltan. Gaztandegian bai, gazta bakarka egiten dugu eta hor aukera dut neure buruarekin aritzeko eta barrura begira jartzeko. Gero eta gehiago gustatzen zait, agian adina izango da.



## HAUSNARREAN

*Ardiek egin naute artzain*

**Testua:** Josebe Blanco Alvarez

**Ilustrazioak:** Eider Uribarrena Reyero

**Diseinua:** Maitane Gartzandia

**Argazkiak:** Dani Blanco

### Eguneroko berezia

Artzainaren egunerokoa da *Hausnarrean*, lekukotasuna prosaz eta poesiaz damaiguna. Euskaraz, pasarte batzuetan galizieraz ere bai. Artzainaren hiztegia eta urte osoko lanen taula ere baditu.

### Liburuaren ezaugarriak

272 orri / Koloretan / Prezioa: 22 €

### ARGIA jendearentzat eskaintza berezia

Urriaren 22ra arte, ARGIAren harpidedunentzat 20 euroan eta harpidetza orain egiten dutenentzat doan. Eskaera egiteko: idatzi [azoka@argia.eus](mailto:azoka@argia.eus) edo deitu (+34) 943 37 15 45

**Erosteko:** [azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus)-en edo (+34) 943 37 15 45 zenbakira deituta.

Uste dut horregatik idazten dudala. Idazketak eskatzen duen hausnarketa egiteko aukera ematen dit artzaintzak.

### Militantziako harremanen indarra sentitu egiten da liburuan.

EHKOLEktiboa, energia berriztagarrien gaia lantzen duten taldeak, Biolur elkar-tea... bakardadeak izan ahal du ulertezintasun bat, eta militantzian sentitzen duzu barruan duzun horrek baduela ispilu bat aurrean, badagoela jende bat zure ideietatik gertu dagoena. Gainera, elkarrekin egoteak aukera ematen digu eraikitzen jarraitzeko eta ideia eta bulkada horietan sakontzeko. Horrek pertsona gisa aberastu egiten zaitu, asko.

### Hiritik urrun dagoen baserriaren eta administrazioaren arteko harremana liburu honetako melodrametako bat da.

Bizimodua antolatuta dago hiritik eta hiriko jendearentzat. Gu EAEko populazioaren %11 gara, baina bagara eta hemen gaude. Politikarientzat neurgailuak bozkak dira eta populazioaren %89 bizi bada hirian, haiei begirako politikak eta erabakiak hartuko dituzte. Baina, berez, erakunde publikoetan ardura duenak ikuspegi zabalxeagoa izan behar du. Sustatu nahi dituzten politiketan hartzen diren erabakiek herritar guztiei begira egon behar dute.

Horren ondorioz, zeure burua topatzen duzu kalean biziz gero zeure gain hartuko ez zenituzkeen gauzak zeure gain hartzen. Eskola garraioaren arazoa pil-pilean egon da ikasturte honen hasieran, eta Jaurlearitzak kalte ordainak emango dizkie guraso horiei. Ongi iruditzen zait. Baina landa eremuan bizi diren haur eta gazteengan ez du inork pentsatzen: inork ez du planteatzen kalte ordaina, edo inork ez du planteatzen nola antolatu horien eskola garraioa, edo nola antolatu behar den eskola ondoren bertso-eskolara edo kirolera joan nahi badute aukera hori izan dezaten. Edo parrandan atera nahi dutenean... hirietan badago Gautxori zerbitzua, eta landa eremuko gazteentzat?

Nola ez dira hutsik egongo hemengo baserriak? Gure etxe inguruan bederatzitximinia daude, eta hirutatik baino ez da kerik ateratzen. Eta baserriak erortzen ari dira. Baserri askoren kasuan dena bat izan da, umeak izan eta kalera jaistea. Gizarte honek erabaki beharko du ea nahi duen jende gaztea eta umeak baserrian bizitzea, eta ea zertarako dagoen prest hori horrela izan dadin.



## Liburuak jositakoak

*Hausnarrean* liburuak hainbat harreman josi ditu bere bidean. Horiez galdetu diogu Josebe Blancori.

### Tere Irastorza

Idazle Eskolan tutore, sortze prozesu osoan

"Zer esango dut Terez? Idazle Eskolan ez didate erakutsi nola esan Tererekiko sentitzen dudana eta berak eman didan guztia. Ez dakit adierazten.

Idazle Eskolan bi ikasturte eman ditut. Ikaragarria da hango irakasleek eta ikaskideek erakusteko dutena, tresna asko jarri dizkirate mahai gainean. Sekulako espazioa da, ikaskideen artean giro berezia sortzen da... nik ez daukat hain eskura liburuek eta literaturak halako pisua izango duten giro bat, arnasteko toki bat. Bizitzaren opari izugarri eder bat izan da".

### Eider Uribarrena

Ilustrazioen egilea

"Eider 14 urterekin etorri zen gure etxera, bere amarekin batera, euskara lantzerako. Harrezkero lau urte pasatu dira eta etxeko dira, biak. Liluratuta geratzen ginen bere marrazteko moduarekin, etxean zintzilikatuta ditugu berak orduan egin zituen koadro batzuk. Etxe honetan dagoena ulertuko zuen marrazkilaririk izatekotan, bera zen".

### ARGIA

Zergatik argitaratu duzu ARGIA n?

"Harpidedunak gara. Sinesten dugu proiektu honetan eta ARGIA gure sentitzen dugu. Horretarako arrazoi asko egon daitezke, eta horietako bat da ARGIA n topatzen dugula jendarte bat gure ispilu izan daitekeena, eta babesari sentitzen dugu orrialdez orrialde topatzen ditugun edukietan".



Jendarte honek pentsatu beharko du zer komunitate nahi duen. Gu ez bagaude, zer? Gazta Gaztelako industria batek ekarritakoa jan behar dugu? Saltzen den gehiena handik dator.

Bada beste elementu bat: panorama ikusita, uste dut hirian jende askok ikusiko duela bere burua behartuta alde egiteko, hiriak ez direlako bizigarriak izango eurentzat. Jendea landa eremura bizitzera etortzen denean, zer? Gizarte bezala beste buelta bat eman behar dio guzti horri.

**Artzainaren urteko lanen koadroa dakar liburuak eta ia 100 lan daude zerrendatuta bertan. Liburuan diozu "gure egutegian ez daude egun gorriak eta beltzak, egunek ardi kolorea dute".**

Gure lana ez da bizi/ez bizi alternantzia dagoen sistema. Jende askorentzat bizitza bukatzen da lanera joan behar duela pentsatzen duen unean. Hor ez-bizitza hasten da, handik zortzi ordura lanetik ateratzen denean bizitzara itzultzen da, eta hurrengo egunean itzultzen da ez-bizitzara.

Gurea desberdina da, alde on eta txar guztiekin. Gurea bizimodu bat da. Horregatik esaten dut ardiekin bizi gara, ez ardietatik. Haien erritmoan bizi gara. Denborak beste dimentsio bat hartzen du. Sasoi honetan lasaiago gaude, ez dugu jetzi behar, ez dugu gazta egin behar, ez dugu erditzerik artatu behar... ardien bizimoduak markatzen du gurea.

Gure etxean ez dugu bizi "asteburua behar dut" sentipena. Edo bai, baina nekearekin lotuta dago, fisikoa gehienbat,

hainbat sasoitan. Horretan asko laguntzen du egiten ari zaren horri zentzua topatzeak. Niretzat gogorra litzateke zentzurik ikusten ez diodan lan batean zortzi orduz aritzea, eguna joan eguna etorri, eta abuztuarekin amestea.

**Zuen bizimodua erakargarria da gazteak artzaintzan has daitezten?**

Nik uste gazteak laborantzan edo abeltzaintzan hasteko oztopo handienetakoa dela jendarte honetan hedatuta dagoen munduan egoteko manera. Dena momentuan lortu nahi dugu, dena erraz, esfortzua tontoen gauza da...

Bizitza askoz ximpleagoa da sistema horrek adierazten duena baino. Baina kontsumoan oinarritutako gizartean gure lana zer da? Janaria zer da? Hain inportanteak ez diren gauzak baloratzen dira, eta benetan garrantzizkoak direnak mespretxatzen dira. Soldaten taulak ikustea besterik ez dago: gure soldatak han behean daude, eta pertsonak zaintzen dituztenenak ere bai. Irakasleen lan baldintzak ez dira onenak eta osasun langileenak ere ez.

Baina uste dut gure bizimodu hau erakargarria dela. Uste dut jende gazteak topatuko balitu beste baldintza batzuk eta beste babes bat, askok lan hau aukeratuko lukeela bizitzeko. Gu Wwoof sarean gaude [baserrian denboraldi batez bizi dira wwooferrak, bertako lanaz eta agroekologiak ikasten, lan egin bitartean], eta wwoof egitera etortzen diren asko hiritarrak dira: bere bizitzari beste norabide bat eman nahi diote, baina oztopo asko aurkitzen dituzte bidean. ●

“ ”

# “Emakumeen kontrako bortizkeria da uzten ez den arma bakarra”

**CRISTINA CHIQUÍN RODRÍGUEZ**

Argazkilari guatemaldarra

Cristina Chiquín Rodríguez argazkien bidez komunikatzen da: zer da emakume guatemaldarra izatea? Horren bilaketan datza Bilboko Bira kulturgunean aurkeztu duen erakusketak, *La búsqueda* (Bilaketa), izen bereko liburuaren lagin bat. Lagun Artean GKEaren bidez etorri da Euskal Herrira, bigarrenez.

 RUBEN SÁNCHEZ BAKAIKOA  CRISTINA CHIQUÍN RODRÍGUEZ

**G**uatemalaa une politiko zailean dago. Abuztuko hauteskundeetan Semilla mugimenduko Bernardo Arévalok irabazi zituen hauteskundeak, “Gazteek batez ere zerbait ezberdina nahi zuten, aldaketa bat”, dio Cristina Chiquínek. Hala ere, eskuinak emaitzak onartu ez, eta auzitegien bidez hauteskundeok inpugnatzen saiatzen ari da. Árevalok urtarrilaren 14an hartu beharko luke kargua, baina, “edozer gerta daiteke”.

## HILDAKOAK ETA HOBIAK

Guatemalan 19 miloi lagun bizi dira, haietarik erdiak 24 jatorrizko herrietakoak dira. 1960tik 1996ra gerra zibil odoltsua izan zen: 200.000 hildako, 45.000 desagertu eta 100.000 desplazatu, oraindik hobi komun asko dago zabaltzeko. 1998an Argitze Historikorako Txostena (REMHI) argitaratu zen, Juan José Gerardi monsinoreak gidaturik. Ge-

rardi bera buruan joka hil zuten txostena argitaratu eta bi egunera; Presidentearen Estatu Nagusiko hiru militar zigortu zituzten hilketatik.

Gerra garaian AEBen eta United Fruit Companyren interesak egon baziren gatazkaren atzean, gaur egun, “batetik, AEBei interesatzen zaio Guatemala migratzaileendako inbutu bat izatea; bestetik, Europako hidroelektrikoen interesak, meategiak eta petrolioia daude ere”. Chiquínek Europar Batasunaren aldaketa salatu du: “Garai batean giza eskubideen aldeko erakundeei babesa erakusten bazieten ere, orain Gobernuak babesten dute terroristen kontra borroka egin dezan, eta nortzuk dira terroristak? Bere lurraldea defendatzen duen jendea”.

## CRISTINA CHIQUÍN

Unibertsitatean ikasten zuten bere ahizpen bidez izan zuen gerraren berri Chiquínek. 1983an jaio zen, gerrako urte

txarrenetako batean, baina hirian ez zen ozenki gerraz hitz egiten, “desagerraraz baitzintzaketen”. Hamar bat urte zuela Rigoberta Menchúren *Así me nació la conciencia* irakurri zuela gogoan du, baita Ricardo Fallaren *Masacre de la selva* ere.

Mende berriarekin hurbildu zen giza eskubideen aldeko taldeetara, eta gerrillatik alderdi politikorako igarobidea egina zuen Unidad Revolucionaria antolakundera. Unibertsitatera joan ordez, Huehuetenangon hasi zen lanean giza eskubideen aldeko erakundeen bidez: “Enpresa hidroelektrikoak eta meategiak ari ziren lurraz jabetzen, guk informazioa ematen genien komunitatean zer egin nahi zuten erabaki zezaten, beren eskubidea delako beren lurra defenditzea”. Bi irratsaio feministetan eta argazkiak egiten ibili zen. “Batzuetan kameraren atzean ikusten dituzu gauza batzuk hitzen bidez ez direnak hain

erraz ateratzen, egun batean hori sentitzen hasi nintzen”.

Aurretik, ordea, deseraikitze edo desikaste prozesua etorri zen: “Joaten gara hiritik komunitateen salbatzaileak garelakoan, gero ohartzen zara han badagoela antolaketa bat, jendea bere lurraldea zein den ezagutzen duela, bere bizitza, gertatu zaiena. Pila bat ikasi nuen bertan, hori izan zen nire eskola”. Hortik dator *La búsqueda*: “Nirea, emakumeena”.

Identitatearen bilaketan, Guatemalatik alde egin eta urte eta erdiz Bartzelonan bizitzen egon zeneko garaia ere aipatu du: “Han, ordura arte ez bezala, ezagutu nituen bazterkeria eta arrazakeria nire gorputzgatik”.

## LA BÚSQUEDA

“Liburuko azalean nitxo bat ageri da, ilun baina bi kandela piztuta. Herrien bilaketa lana nitxo batean hasten da emakumeen bidez: beren identitatea, memoria, egia, norabide bat bilatzea, herrialde hobe bat, berriz ez gertatzea. Eta niretzako ere hori da, ni herri honen parte naiz, eta mina eta sufrimendua ikusten ditut, baina samurtasuna, maitasuna, erresistentzia eta borroka ere bai. Zer inplikatzan du pentsaera ezberdin bat duen emakume pobretu guatemaldarra izateak hainbeste bortizkeria dagoen herrialde batean? Niretzat, argazkiak nire burua aurkitzeko modu bat dira”. Hainbeste biktimekin lanean ibili eta gero, “ia medium bat bezala ibili naiz, batzuetan hil-

dakoekin mintzo naiz, beren senideen bidez. Hamar urte daramat, hilabete luzez egunero, emakumeek jasandako bortizkeria sexuala entzuten, astuna da, zure papera lekukotza ematea ere bada, beraien mina zuregana pasatzen da”.

2013an, Ixil herriaren kontrako genozidioa eta gizateriaren kontrako krimenak egotzita, José Efraín Ríos Montt eta José Mauricio Rodríguez Sánchez militar kolpisten kontrako epaiketa hasi zen. Prozesu haren emaitza gazi-gozoa izan bazen ere –Ríos Montt errudun jo zuten baina etxean hil zen, eta José Mauricio Rodríguez absolutu zuten–, garrantzia izan zuen halako prozesuei ekiteko eta Guatemalan bertan eta kanpoan jasandako bortizkeria erakusteko. Ondoren beste prozesu batzuk etorri ziren: Achí eta Kekchí herrietako emakumeenak, kasu.

## EMAKUMEAK ARGAZKIETAN

Lur birrinduaren estrategiaren bidez, komunitateko gizon guztiak hiltzen zituzten, eta “emakumeen kontrako bortizkeria gerrako arma gisa erabili zuten, zazpi urteko neskekin hasi eta emakume zaharretaraino”, azaldu du Chiquínek. Emakumeen gorputzak “gerra botina” zirela dio, eta etxeko lanetarako zein sexu esklabo gisa erabili zituztela. “Batzuetan, soldaduen behar sexual kontrolaezinen modura azaldu dute gertatua, baina sarraski politiko bati buruz ari gara. Emakumeak dira komunitatearen zentroa, eta beren gorputz bortixatuek komunitatearen erabateko arpilatzea eta ohore-galtzea dakarte, era patriarkalean hitz eginda”.

Emakumeek bizitza sinbolizatzen dutela dio argazkilariak, eta horren ondorio direla euren kontrako erasoek hartzen duten forma: bularrak moztu, artoaren gainean herrikideen aurrean bortixatu (artoa komunitateen elikagai nagusia zein ardatz kulturala da, “euren bizitzaren ideia eta ohorea akabatu nahi dute horrela”). Emakume asko haurdun utzi zituzten militarrek, “eta jaiotako umeak gerraren seme-alabak ziren, emakumearen eta komunitatearen lotsaizuna”. Emakume asko komunitateetan baztertu zituzten eta desplazatuak izan ziren.

Hiriraino ere iristen zen drama, 1959ko Miss Guatemala izan zen Rogelia Cruzen kasua bezala. “Bere joera ezker-tiarragatik, bortixatu eta hil zuten eta bere gorpua agertu zen bularrik gabe Guatemala hiriko kale bazter batean”.

Baina nola irudikatu genozidioa argazkietan? “Irak edo Afganistango gerra irudiek hunkitzen gaituzte, tankeak eta



23 urteko Noemi ustez bere bikotekideak hil zuen. 2021eko apirilaren 13a.



36 urteko bizi barne gudan desagertuak izan ziren pertsonen argazkiak, hilerri baten horman.

bonbak ikusteak ziztatzen gaituelako. Ni argazki bat egitean testuinguruaz baliatzen naiz: baso bat ageri da, bidezidor bat, lekua ederra da, zer gertatu zen? Hor agertu zen bi urteko neska baten gorpua, bortxatua”. Liburuan biziek eusten diete hildakoen argazkiei, edo protesta batean daude, edo besarkaturik, edo...

### GERRAKO ARMA IZATETIK FEMINIZIDIOA

“Emakumeen kontrako bortizkeria da uzten ez den arma bakarra”. Chiquínek Kolonbiako gerratik maileguan hartu duen esaldiak balio du Guatemalan: *ba-kea* heldu zen 1996an, baina bortizkeriak jarraitu zuen. “Esaten dute gizon gehiago hiltzen dituztela emakumeak baino, baina emakumeen gorputzak nola uzten dituzten ematen du mezu bat: bizitza publikotik alde egin dezagun, beldurtu gaitzen”.

Liburuan azken urtetako feminizidioaren argazkiak ere badaude. 2013tik 2018ra, 40.000 pertsona desagertu dituzte Guatemalan, gehienak emakume gazteak. “Isabel Claudina alerta dugu (@isabel\_claudina), emakume bat desagertzen denean salatu eta bilaketa lana hasteko”. Egun ez dute erabiltzen *desagertze behartua* terminoa, “hori gerra testuinguruan erabiltzen baita, non estatua den eragilea. Baina nire lana bideratzen dut estatua salatzeraz, justizia egin dadin ez bermatzeagatik. Estatuak ardura du desagertze horietan”.

### EMAKUMEAK MEMORIAREN TRANSMISORE

Guatemalan genozidiorik izan ote zen eztabaida publikoan, emakumeek jasan-dako bortizkeria sexualaren salaketak eragin handia izan zuela dio Chiquínek, asko sentsibilizatu zuelako gizartea, “zure ama, amama izan zitekeelako”. Iraganekoaz gain egungo feminizidioaren salaketarako ere balio izan du, “emakume haiek hainbeste urte pasata ere eutsi diotelako salaketari”.


Jatorrizko herrientzat hitzak, ahozko transmisioak, garrantzi handia du, eta kontaketa horrek irabazi behar du espazioa, argazkilariaren ustetan. “Oraindik herrialdean hori ez da diskurtso nagusia. Bizi izandakoa kontatu behar da, egin ezean, bihar berriz gerta baitaiteke”.

### ETA EUSKAL HERRIAN ZER?

Chiquínen aurreneko helburua Guatemalan gertatzen dena erakustea da. “Euskal Herrian lotura handia egon da



Maia k'aqchiquel emakumeak Presidentetzaren aurrean, Cementos Progreso enpresaren aurkako protestan (2014).



Autodefentsa zibileko bost patruiliariren aurkako epaiketa, 1981-1985 artean 36 emakumeren aurkako sexu indarkeriagatik (2022).

Guatemalarekin gerra sasotik, hemengo jende asko han egon zen komunitateak babesten, sarraskien lekuko izan ziren, garrantzitsua da hori ez galtzea”.

Berdinen arteko trukea sustatu nahi du: “Guatemalako jendeak ikusi behar du nazioarteko elkartasunak jarraitzen duela. Eta hemengo emakumeek ikusi behar dute hango emakumeek nola egiten duten borroka, ikasteko Europa ez doala Guatemalara salbatzaile gisa”. Gogoratu du ere bere jaioteritik emakume asko heltzen dela Europara: “Gure borrokak trukatzeko da kontua, zeren

borroka askotan batuta gaude: emakumeen gorputzak, adibidez, edo justizia aldarrikatzean... Gero, pentsa, Guatemalan hobi komunak irekitzen ari gara, Espainian oraindik falta dira gehienak irekitzeko”.

*La búsqueda* liburua bera asmo horren gauzatze bat izan da. Euskal Herrian aurkeztu zen 2018an, Lagun Arteanek argitaraturik. Guatemalako hirian 2019an aurkeztu zen, Chiquínek Ixil emakumeei eskura eman zien, eta egindako lanari zentzua eman zion horrek: liburuan ageri diren emakumeen esker onak. ●

# ITSAS MIHILUA EZAGUTZEN



GARBIÑE LARREA

U da joan zaigula dio egutegiak, nahiz uda giroak gure artean jarraitu nahi duen oraindik ere, eta sasoi hau baliatu nahi nuke hondartza inguruetara itsas mihilu bila joateko. Kostaldera jo eta itsaslabarretako harriei zein gizakiak eraikitako murruei begira jarriko gara. Leku hauetan ere belar txarrak hazten direla esango du zenbaitek baina nik aberastasuna besterik ez dut aurkitzen; itsas-mihiluz beteta baitaude orain. Loretan, eta are hazitan, dagoen itsas mihilu heldu eta usaintsuz.

Barrualdeko parajeetan mihilua (*Foeniculum vulgare*) bezala, itsas mihilua (*Crithmum maritimum*) kostaldeko parajeetan ikusiko dugu. Zenbait antzekotasun izan arren itsas mihiluak berezitasunak eta erabilera interesgarriak dituenaz, gaur artikulua berarentzat izango da.

Hasteko, elikagai interesgarria da, bere hostoak jangarriak baitira. Zapore nahasketa konplexua du: anis zaporea orain, apio tankera gero (*familiakoa da*), nota zitrikoak atzetik eta oroz gain gazitasuna, itsas bazterretik zenbat eta gertuagokoa izan, orduan eta gaziago. Sukaldaritza garaikidean erabiltzen hasiak dira, akaso urte batzuk barru gutizia (edo luxu) izango da, zeinek jakin!

Zapora konplexutasun honen atzean esentzia trinkoak daude: pinenoa, anetola, eugenola eta dilapiola. A, C eta E bitaminatan ere aberatsa da, gatz mineralak eta oligoelementuak ditu (iodoa eta bromoa), fitoestrogenoak, betakarotenoak eta azido klorogenikoa ere bai.

Mihilu guztiek bezala, digestioa egiten eta haizea kanporatzen laguntzen du baina itsas mihilua sendabelar gisa baino sukaldean erabili izan dela ikusten



ISTOCK

dugu, nahiz bietarako balio duen. Balear irletan antxoa eta oliba kontserbatan edo ozpinetan beratuta erabiltzen da oraindik ere.

Gordinik jan daiteke baina tamainan, zapora sarkorregia baitu, hala, ozpinetan edo oliotan beratuta erabiltzea da samurrena. Ozpin zein oliotan bi likido hauen bolumenaren laurden bat edo heren bat ipiniko genuke gordinik, txortan eta hosto, ongi zatituta. Hilabetean armairuan eduki ondoren iragazi eta kristalezko botilan ongi egongo da. Entsaladei, pureei zein saltsei ukitu berezia emango die, zalantzarik gabe.

Fitoestrogenoak dituenaz, menopausian izan ohi diren likido atxikipena eta gualdeko izerditzeak tratatzeko egokia da; dela infusiotan (lehortuta), dela ozpinetan zein oliotan beratuta.

Osagaien artean aipatutako azido klorogenikoak erradikal askeen kontrako indarra du eta azala gaztetzeko erabiltzen da kosmetikan. Ekilore oliotan beratuta eta azalerako *serum* ederra egiteko baliatu genezake.

Bere bi esentzia, anetola eta estragola, neurotoxikoak dira dosi altuan; tamainan hartu behar genuke beraz (egunean hiru infusio gehienez). Haurdunaldiko lehen sei hilabeteetan ezin da hartu baina edoskitzaroan bai. Lau urtetik beherako umeentzat ez da gomendatzen.

Kimioterapia tratamendua badago edo antibiotikoak hartzen badira itsas mihilua botika hauek hartu eta bi ordu-tara hartu behar da. Iodo gehigarriak hartzen dituztenek ezin dute erabili eta hipertiroidismoa dagoenean ere ez. ●

## A ZE FAUNA!

# LANDA EREMUAREN ZAINDARI



**NEREA PAGALDAI AGIRIANO**  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

**E**lizara olioa ekarri, eta olioa falta, gauero. Nor ote? Elizako olioak edatera sartzen zela esaten zen, Etxalarren sakristaua eskopeta eta guzti zaintzen jartzeraino. Hortik omen datorkio izena Ataunen eliz-hontz ezizenez ezagutzen den animalari, besteak beste, hontza zuri, mozolo zuri edota gabontz izenez ere ezagutzen denari. Betidanik izan da baserriar askoren bizilagun Euskal Herri osoan zabaldua dagoen hontza espezie hau. Iparraldeko landa zabaletan arrunta izanik, hegoaldeko nekazaritza-lautadetan urria da, eta baso eremuetan, aldiz, ez dago aurkitzerik. Eta herri askotan bezala, Etxalarren ere ondo dakite kanpandorreak dituela habia egiteko gustuko. Baina baserri, korta eta baselizen ganbara eta goitegiak ere habia egiteko leku aproposak iruditzen zaizkio.

Bere ezaugarri dituen kolore zuri eta bihotz formako aurpegia duen beste hegaztirik ez da. Hontza izanik, nola ez, gautarra da eta iluntasunean bere kolore zuriak atentzioa eman du betidanik. Izen zientifikoak ere nabarmentzen du hau, *alba*, zuria. Urte guztian zehar dugu gurean eta lurraldekoia izan arren, ugalketa-garaitik kanpo badu denbora auzokoen eremuetara eskapatxoak egiteko. Ilunabarrean edo gauean ikusi daiteke batez ere haien hegaldi lirain bezain isila. Baina askotan, ikusi baino... errazagoa izaten da bere garrasi mikatza entzutea, hotzikara emateko modukoa! Ehizan dabilenean, aldiz, denetan isilena da, harrapakin dituen saguak zast! Ezustean harrapatzeko.

Hegazti gautar honen harrapakin gustukoena mikrougatzunak dira, basasagua (*Apodemus sylvaticus*), larrelursagua (*Microtus agrestis*) eta satitsu arrunta (*Crocidura russula*) batez ere. Hegazti txikiak, intsektu handiak zein saguzarrak ere harrapatzen ditu. Ezagu-

nak dira lursaguek laborantza lurretan edota saguek baserri inguruetan eragin ditzaketan kalteak. Baina, a ze zorzea gurea! Hontza zuriak sagu eta lursaguak ditu gustukoan, horiek bere dietaren %80-a izateraino. Hau dela-eta, izurrite harrapakari ona dela esaten da, eta karraskari horien ugaritzea kontrolatzeko eta kalteak murrizteko, hontza zuriari habia-kutzak edo zutoinak jartzea gomendatzen dute laborantza lurretan, kontrol biologiko gisa. Nafarroa dugu honen adibide, urteak baitaramatzate laborantza lurretan hontza zuriarentzat (eta belatz gorriarentzat, *Falco tinnunculus*, karraskariak gustuko dituen beste hegazti bat) habia-kutzak jartzen. Hauei esker, jakin badakigu hontzen txitak lehen hegaldiak egiten hasten diren momentuan, habia eta egun bakoitzeko bost karraskari jaten dituztela, hots, matematikak eginda, hilabetean 150 karraskari inguru.

Gaur egun, zoritxarrez, elizetako bizilagun lirain honek hainbat mehatxu dauzka. Alde batetik, eraikitzen diren eraikin modernoek zein baserri, korta, baseliza eta abarrak birmoldatzeak, gutxitu egiten dituzte hontzak habia egiteko erabiltzen dituen ganbara, goitegi

### HONTZA ZURIA

*Tyto alba*

**TALDEA:** Ornoduna / Hegaztia

**NEURRIA:** Mokotik isatsera 33-39 cm. Hego luzera 80-95 cm.

**NON BIZI DA?** Zuhaiztietan, nekazal eta landa eremuetan.

**ZER JATEN DU?** Karraskariak eta hegazti txikiak.

**BABES MAILA:** Europa mailan babestua.

eta kanpandorreen aukerak. Bestetik, azken urteotan ingurunearen urbanizazioa ikaragarriak habitataren suntsipena ekarri du. Honek hainbat ondorio ditu: ehiza egiteko leku aproposak murrizten ditu, errepidean autoek zanpatuta hontza gehiago hiltzen dira toki horretan desagertzeraino... Azkenik, zereal eta ardo-lautadetan egin den nekazaritza ereduak ingurunea sinplifikatu du eta ondorioz, hontza zuriak hain gustuko dituen harrapakin espezieak desagerrarazi ditu. Janaririk ez bada, hontza zuririk ere ez. Aipamen berezia egin behar zaie bai nekazaritza eremuetan zein landa, herri eta hirietan sistematikoki eta ugari erabiltzen diren arratoi-pozoi eta sator-pozoiari. Pozoi horiekin, hontzaren jana pozoitzen dugu, eta pozoitutako mikrougatzunak jaterakoan, zer gertatuko ote da? Bera ere pozoituta hiltzen dela, eta honek espeziearen heriotza-tasaren igoera gogorrak eragiten ditu. ●



RSPB.ORG.UK

# MORALAREN ESTETIKA POLTSA BATEAN



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**L**abezomorro bat hiltzen baduzu heroia zara. Tximeleta bat hiltzen baduzu gaiztoa. Moralak irizpide estetikoak ditu. Friedrich Nietzschek esana da.

Egun okertu egin da moralaren estetika; ez dakit zer esango lukeen gaur, mende eta erdi geroago filosofo alemaniarrak baina moralaren izenean –du tenak– eta batez ere estetikaren izenean –ia denok– edozertarako gai gara, geure buruaz beste bat egiteraino.

Geure buruari barre egiten diogu, bai. Naturazaleak gara oso, ingurumena maite dugu, baina gure alabak zaborrak itoko dituen mundu batean bizitzera behartuko ditugu, arnasarik ere hartzeko zirrikiturik izango ez duten munduan, eta utziko diegun urarekin egarri asegaizta izango dute bizitza guztian. Guk hilko ditugu geure alabak. Egiten dugunari begiratu besterik ez dugu. Hona adibidexoa bat.

Luartokirako moduko poltsak. Gero eta gehiago erabiliko dituzu luartzeko egokiak edo konpostatzeko modukoak diren poltsak. Poz puntua ere ematen du poltsa hori erabiltzeak... “Ez dut plastiko txar, zikin, kutsakor...



nire ametsetako munduaren hondatzaile nagusia den material hori erabiltzen”. Labezomorroa hiltzen duen heroia zara. “Alde ederreko material leun, bigun, gozo, xuabea da beste hau, eta ingurumena zaintzen dut”. Bai, eta zenbat eta poltsa gehiago erabili, gehiago zaintzen duzu...

Ikerketa asko egiten ari da poltsa santu horien gainean. Espainiako CSICEko ikerlariak zuzendu eta *Journal of Hazardous Materials* aldizkarian argitaratu berria duten batean luartokirako moduko poltsa horiek ezlekuan jartzen dituzte. Kutsatzaile handiak omen, bi aiekatatik: bai berak sortzeko bidean erabiltzen diren ezkutuko osagai toxikoen aiekatik –ederki asko patentatuak daudenez ezin argitara atera, ezta nahi ere!–, bai deuseztatu ahala sortzen dituzten hondakin zatitxoengatik ere.

Gaur egun luartzeko moduko poltsa aukera handia dago, artoarekin, patatarekin, zuntzekin eta abarrekin eginak, baina horien ibilbidea ezagutu behar. Etxeko luartokietan ez omen dira behar bezala desegiten; luartze industrialean soilik deuseztatzen dira. Erremedioa ez da hain zaila: utikan poltsak, berberberberabilgarriak edo paperezkoak ez badira...

Gure alabarengan pentsa dezagun, gainontzean bart arratsean ondutako bibelarrak etxeratzeko lanetan ari gine-la Getariako Antton lagunak zioen eran “munduaren akabera dek hau”. Poltsa batean sartutako munduarena. ●

## ekologikoa, lurrari lotutako ekoizpena.




**Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua**  
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi



**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO



Europar Batasuna  
Landa Garapenerako Europako Iniziatibaren Bidez  
Europe's Rural Development Initiative



## DUINA

# EKOIZPEN KOSTUAK ETA ELIKAGAIEN BALIOA HAURREKIN LANTZEKO MATERIAL DIDAKTIKOA



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**G**ipuzkoako Biolur elkarteak iaz aurkeztu zuen Duina ikerketa proiektuaren txostena. Baratze gintza ekologikoko esperientzia desberdinen diagnostikoa egin zuten bertan, hainbat alor kontuan hartuta: ekonomikoa, ingurumenekoa, bizi baldintzena, zaintzena eta beste. Denbora eta datu ekonomikoak jaso zituzten ikerketan, elikagai ekologikoen ekoizpen kostuak eta prezioen arteko alderaketak eginda. Ikerketa jendarteratzeko, baina, hainbat bide jorratzen ari dira: martxoan, esaterako, Ekoizpen Duina Kontsumo Herrikoia sukaldaritza saioa egin zuten. Ikasturtea hasi berri den honetan, gaia haurrekin lantzeko beste proposamen interesgarri bat dute esku artean: eskola komunitaterako Sukaldean Kontu Kontari material didaktikoa.

## ESKOLAKO MATERIAL ZABALGARRIA

Hamabi labore landu zituzten Duina proiektuan, horien ekoizpen kostua eta duinak izango liratekeen prezioak aztertuta. Labore horiek oinarri hartuta osatu dute material zabalgarrria, Irrimarrak egindako ilustrazio koloretsuz lagunduta. “Osagai eta plater bakoitzaren prestaketak zenbat balio duen kalkulatzeko ariketak aurkituko ditugu, elikadura eta bizitza duinagoak garatzen



lagunduz”, diote webgunean materialaz. Biolur elkarte Mainer Zubikarai Beristainek azaldu duenez, batik bat 7 eta 12 urte arteko haurrei zuzenduta dago, Lehen Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren mailako ikasleei.

“Ariketa matematikoez gain, laboreak garaika daude antolatuta, eta bakoitzarekin errezeta bat planteatzen da. Beraz, matematika, ingurumena, elikadura eta beste gai asko lantzeko joko asko ematen du materialak”, adierazi

du Zubikarai. Izan ere, elikagaien balioa haurrekin lantzeari, orokorrean, garrantzia gutxi ematen zaiola sumatzen dute taldean. “Deskonexioa dago horren inguruan. Garrantzitsua da umeekin elikagaien balioaz eta kostuaz hitz egitea, gaiari lehentasuna ematea”, gehitu du Mirene Begiristain Zubillaga taldekideak. Are gehiago, kontuan izanda azken 30 urteotan familiako gastuetan erdira jaitsi dela elikadurarena.

## BERGARAKO SAN MARTIN ESKOLAN, LEHEN PROBA

Materialaren aurkezpena Bergarako San Martin eskolan egin zuten iazko abenduan, Ereindajan proiektuarekin eta bertako guraso elkartearekin elkarlanean. “Harrera oso ona izan zuen materialak, dinamizaziorako inplikazioa ere handia izan zelako”, diote bultzatzaileek. Tokiko alianztzekin elkarlanean, materiala herri eta eskola gehiagotara zabaltzeko helburua dute orain. “Eskolentzat ez ezik, guraso elkarteentzat, familientzat eta hezkuntza mailako eragileentzat da interesgarria materiala, eta zabaltzea nahiko genuke”.

Zazpi euroan eskura daiteke materiala –bost euroan Biolurreko kideentzat–, elkartearekin harremanetan jarritik. Biolur.eus webgunean topatuko du informazio guztia interesa duenak. ●

AGENDA



# Agenda batek hainbeste joko eman zezakeenik

**ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA**

**N**ork bere baratzea gehiago eza-gutzeko tresna da agenda hau, agenda arrunt baten eran ohar-rrak apuntatzeko erabilera izateaz gain, landareekin egiten ditugun lanak apuntatzeko ere prestatuta dagoena. Halaxe definitu du Jakoba Errekondok, irakurle, zazpigarren urtez argitaratu eta aurkeztu berri duten *Ilargia eta landareak agenda*, Garazi Zabaletak egindako elkarrizketan. Ezagutu dugu, ordea, Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak ondutako agendari beste erabilera bat ematen dionik ere.

Goizargi Lakuntza Urangarekin hitz egin dugu. Beti atsegin izan ditu lore eta landareak, baina duela sei urte egindako apustuarekin, gaur egun gertuago bizi du landareen mundua. Pagotxa loradenda ireki zuen 2017an Atarrabian (Nafarroa) eta hasieratik eman nahi

izan dio bere ukitua. Landareen inguruko zenbait liburu dauzka salgai, tartean Bizi Baratzea proiektukoak eta euskarari ere bere lekua eman nahi izan dio. Ez da dendako jarduerara mugatzen, ordea. Paz de Ziganda ikastolako guraso izanik, haurrentzako tailerrak eskaintzen ditu ikastetxean. Eskulanak egiten dituzte lore, landare eta haziekin. Eta hemen sartzen da jokoan agenda. Goizargik material eta informazio iturri bezala erabiltzen baititu liburuxkako irudi, esaera eta hitzak. Sagarra landu nahi duela txikiek? Aprobetxatzen du sagar-klaseen izenak biltzeko eta umeekin, jolasen bidez, horiek aipatzeko. Edo trikuak agertzen dela ilustrazio eta aipamenetan? Eguzki-loreen haziak arantza modura erabilia egiten dituzte trikuak eta hitz egiten dute animaliaz. Urtaroez mintzatzea egokitzen dela?

Zuhaitzen aldaketekin muralak eginez lantzen dute gaia.

“Haur horietako askok ez dakarte etxetik euskara eta oso ondo datorkigu material hori hizkuntza lantzeko: esamoldeak eta hitz-jolasak ikasteko, zuhaitz, landare eta animalia izenak ezagutzeko”, azaldu digu. “Oso giro hiritarrea bizi naiz eta uste dut hala bizi garela gizartearen parte handi bat; etena izan dugu lurrarekiko, eta agenda honek laguntzen digu lurrari lotzen” aitortu digu.

Ez dauka, “oraingoz”, barutzerik Goizargik eta ez du oharrrak apuntatzeko erabiltzen agenda. Baina aurten Atargi Eskola Publikotik egin diote eskaera ikastaro batzuk emateko eta akaso lur-mutur bat utziko dioten itxaropena du. 2024ko agendari beste erabilera bat gehiago emateko aukera suertatuko zaio, agian. ●

## Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



“Familian berriak aztertu ahal izateko, informazioa era objektibo, konprometitu, interesgarri, erakargarri eta, bereziki, euskaraz eskaintzen duen baliabiderik egokiena iruditzen zaidalako”.

**Gasketik Maitek**

“Egunero irakurtzen dut ARGIA eta oso lan txukuna egiten duzuela deritzot”.

**Azpeititik Alaznek**

“Informazio alternatiboa eskaintzen duen euskarazko hedabide bat delako”.

**Zarautzik Odinek**



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

# Neolitoko hierarkiarik gabeko ingeniari-tza

**T**xina, duela 4.000 urte inguru. Pingliangtai herrixka harresituko biztanleek zeramikazko hoditeria eta drainatze zanga sarea eraiki zuten. Holozenoaren amaieran Asia ekialdeko montzoi eremuan ingurugiro krisiak geroz eta ohikoagoak eta larriagoak ziren, eta Pingliangtain aurrekaririk gabeko hoditeria sistema jarri zuten abian krisi horiei aurre egiteko. Berriki Beijingeko unibertsitateko ikerlari batek aztarnategia ikertu du, Hohai, Fudan eta Londresko unibertsitateko ikerlarien laguntzaz, eta emaitza *Nature* aldizkarian argitaratu.

Zeramikazko piezak 20 eta 30 cm bitarteko diametroa dute, eta 30 eta 40 cm bitarteko luzera. Ertz batean zabalagoak dira elkarrekin ahokatu eta hodi luzeak osatzeko. Piezak ikertu ondoren, gehienak aztarnategian utzi dituzte, jatorrizko kokalekuan, bertan hobeto kontserbatuko direlako. Zeramikazko hodi gutxi batzuk berregin eta Txinako hainbat museotan utzi dituzte (argazkiko pieza, kasu), ikerketekin jarraitu eta publikoari erakutsi ahal izateko.

Duela 4.200 eta 3.900 urte artean, uholdeak geroz eta ugariagoak ziren garaian, ura garraiatzeko eta drainatzeko zeramikazko hoditeria eta zanga sarea, Txinan aurkitutako zaharrena, eraiki eta mantentzeko gai izan ziren lankidetzan eta komunitate lanean oinarrituta. Sistemak komunitate osoaren planifikazioa eta koordinazioa eskatzen zuen, baina



HENAN MUSEUM

Pingliangtain ez zegoen egitura hierarkiko zentralizaturik. Horrek erakusten du "Neolitoko gizakiak ingeniari-tza lan konplexuak egiteko gai zirela botere zentral baten beharrik gabe; dena modu komunitarioan egin zuten", Yijie Zhuang arkeologoaren hitzetan.

Hoditeriaz gain, Pingliangtaiko etxeen arrastoak ere ikertu dituzte adituek, eta ikusi dute etxe guztiak nahiko txikiak zirela eta ez zegoela besteen artean nabarmentzen zen etxe handiago eta luxuzkoagorik. Halaber, hilerria ere induskatu dute, hilobietan gorpuekin batera ehortzi ohi zituzten objektuetan nabarmendu ohi baita biztanleen hierarkia; eta hilobietan ere ez dute desberdintasun

sozialak adierazten dituen arrastorik aurkitu. Garai bereko inguruko aztarnategietan, ordea, kontrakoa gertatzen da. Bai etxebizitzek, bai hilobiek, komunitate hierarkizatuak zirela adierazten dute. Baina komunitate horiek ez ziren gai izan klimaren gorabeherak eragiten zituzten arazoei konponbiderik jartzeko.

Hortaz, Pingliangtaiko hoditeriak erakusten du ingeniari-tza obra konplexuak egiteko ez zela beharrezkoa botere zentralizatu izatea. Are gehiago, ageriko desorekarik gabeko komunitateak gaitasun handiagoa izan zuen ingurumenaren erronkei aurre egiteko, aginte modu "garatuagoak" zituzten komunitateek baino. ●



KRZYSZTOF NARLOCH

## Erromatar legioaren "hoz-kailua"

Danubio bailaran (egungo Hungarian) K.o. I. mendean eraikitako erromatar kanpamentua da Novae, Inperioaren muga zaintzen zuen *Legio I Italica*-rentzako egina. Varsoviako unibertsitateko arkeologoek putzu bat eta zeramikazko eta berunezko hoditeria aurkitu berri dituzte bertan, ur horniketarako Inperio osoan erabili ohi

zirenen antzekoak. Baina hodian bideari jarraituz, ezohiko aurkikuntza bat ere egin dute: zeramikazko ontzi edo kutxa moduko bat, hodiak alde luzetik zeharkatzen duena. Barruan murko, kaiku eta animalia hezurren arrastoak aurkitu dituzte eta adituek uste dute Antzinaroko "hoz-kailu" moduko bat dela. ●

# PHOS

(GREKERAZ, "ARGIA")

## Julia Spínolaren lana, Gasteizko Artium Museoan

Erakusketa-aretora sartzen gara artista baten estudiora sartuko bagina bezala, sortze-espazio kuttun baten hesi ikusezinak hautsita. Hanka puntetan sartzen gara, gure arrokekin zaratarik egin gabe, eta isil-isilik, leku horretara sartzeko baimenik ote dugun geure buruari galdegiten. Ilunpetan, gure begiak iluntasunera ohitzen diren neurrira, forma eskultoriko handiak antzematen ditugu, espazioan sakabanatuta, tente eta tinko. Julia Spínolaren *Persona, foto, kopia* erakusketara sartu berri gara.

 JONE ALAITZ URIARTE  NURIA GONZÁLEZ

**S**pínolaren gorputz eskultorikoek –guztira hamar bat– han hemenka ziprztintzen dute espazioa, aretoan nagusitzen den grisari pintzelada marroixkak gehituta. Beraien artetik igarota eta puntu ezberdinetatik ikusita, koreografia enteatu baten parte diren piezak dirudite: sendoak, irmoak, erabatekoak. Lehen begirada batean kolore marroixka nabarmentzen zait, eta piezen materialari dagokionez pista bat ematen dit horrek. Eskulturen forma ezezagunak eta horien azalera zimurtsu distiratsuak, eskultura horiek zer ote diren eta nola eginak dauden galdetzera naramate. Erakusketa honetan hutsetik hasten naizen sentsazioa daukat, lengoia berri horretara egokitu beharrean ikusten dut neure burua.


Julia Spínola (Madril, 1978) eskulturan aritzen da batik bat, marrazkia eta serigrafia bezalako teknikak lantzen baditu ere. Gure testuinguruan artis-

ta ezaguna da, sortzaile askoren erreferentea eta bere lan metodologiaren oihartzunak gure gertuko artistengan soma ditzakegu. 2020ko uztailean, Artiatx espazioak Spínolaren *Rojamente* erakusketarekin ireki zituen ateak, eta Eremuakeko jardunaldietan ere parte hartu zuen Madrilgo artistak. Oraingo honetan, Gasteizko Artium-ek bakar-kako erakusketa eskaini dio, non azken hamarkadako hainbat lan dauden ikusgai, ekoizpen berriko beste zenbait piezekin batera. Gerta liteke museora gerturatzen denak hainbat pieza lehenagotik errekonozitzea, baina egia da piezen instalazioak, horien artean sortzen diren erlazioak eta elkarrizketak, irakurketa berriak sortarazten dizkiola bisitariari.

Literalki ilunpetan ikusten den erakusketa da, hau da, ez dago argi artifizialik artelanak argizatzen, eta piezei ez zaie egozten museoek eska ohi duten homogeneotasuna. Aitzitik, sa-

baian kokatzen diren lauzpabost idibegietatik sartzen den argi naturala da espazioa argizatzen duen argi-iturri bakarra, urtaroaren, eguneko orduaren eta eguraldiaren arabera guztiz aldatkorra, jakina. Faktore horrek ematen dio espazioari eta bertan dauden piezei ezohiko geruza bat, eta gure begiradari ere esfortzu bat exijitzen dio. Argi ezaren eraginez, hasieran obrak itxuraga-beak eta lausotuak ikusten dira, forma bihurritu identifikaezinak. Artelanetara nabarmen gerturatu beharra dago azaleko ñabarduren jabe izateko eta zuntz begetalez egindako formen akaberrari erreparatzeko. Orduan konturatuko gara tonalitate marroi, gris eta arroseko hostopilak diruditela aurrean ditugun eskulturak.

2018. urtean, Spínolak Madrilgo CA2M zentroan egin zuen erakusketari *Lubricán* izena eman zion; termino horrek, zehazki, egunak gauari paso ematen dioenean, eta alderantziz, gauak



egunari paso ematen dioenean sortzen den argi atmosferari egiten dio erreferentzia. Argitasun horrek objektuekiko dugun pertzepzioa guztiz eraldatzen digu, eta hor dago artistaren ikerketaren interesguneetako bat, Artiumeko erakusketan ere presente dagoena.

Le Corbusier arkitektoak bere erai-kuntzetarako, espazioen antolaketarako eta altzarien diseinurako Modulor izeneko neurketa sistema bat asmatu zuen: gizonaren neurri eta proportzioetara moldatuta zegoen neurgailua. Spí-nolaren erakusketan pertsonaren presentzialtasun bat nabari da, pertsonen tamainara egindako eskulturak baitaude. Silex itxura duen landare fibrazko eskultura batek piztu dit atentzioa, tamaina handikoa da eta puztua dirudi. Orain 4.000 urte aurkitu zuten harrizko silex baten transferentzia bolumetrikoa egin du artistak. Operazio bera antzeman daiteke *Rizo* (2023) artelanean, ile kizkur bat abiapuntu hartuta, tamaina handitu eta hiru dimentsioetara ekarri duen eskultura. Azken hori espazio zentraletik kanporatuago dagoen gela-txoan dago zintzilik, tentsioan, iluntasunak janda, apenas da forma lausotu bat. Gerora irakurri dudanez, 1,27m eta 1,55m tarteko eskulturak egin ditu artistak, pertsonen altueraren parekoak, hots, gorputzek errekonozitzen dituen formak eta tamainak dira.

Artistaren lan metodologiari dagokionez, testu eta erreferentzia pusketez jositako bilduma batetik abiatzen da sarri, bere irakurraldietan, idatzietan edo hitzaldietan, han eta hemen, jasotzen dituen aipu eta ideien bilduma da. Pasarte horien erantzunak, hausnarketak edo deribak dira bere eskulturetan islatzen dituenak, koaderno batean hartzen diren apunteak bailiran. Beraz, erakusketa hau pusketez osatutako koreografia bezala irakurri daiteke, hortik izenburua bera, zatikatua, ideien segida bati jarraika: *Persona, foto, kopia*. Ideia horri eutsita heldu naiz *Frase (objeto)*. *BOCA* (2013-2018) instalazioa ikustera. Zoruan, kafe baten isurian kokatzen diren objektuak aurkitzen ditugu (zapata bat, arroz aleak, loreontzi huts bat...), hasierarik eta bukaerarik ez duen ibilbidea da, bukatzen ez den esaldi horren formalizazioa edo hasita dagoen partitura baten musika zatia. Badaude *continuum* batean gertatzen diren bizipenak, akumulazioaz, pilakatez, pusketez.. Hor koka dezakegu erakusketa hau. ●

# Literatura

## Komunitatearen sostengu

Aurreko artikuluan literatura bakardadearen ispilu eta bakardadearen sostengu zela kontatu genuen 2.818 alean. Oraingo honetan, komunitatea ere bakardadearen sostengu dela ikusaraziko dugu, literaturaren bidez. Bakardadea patriarkatuak zeharkatzen duen elementu bat da, emakumeak modu zehatzetan isolatu eta bakartzen dituen. Gizakia existitzen denetik existitzen da literatura, eta

literatura existitzen denetik kontatu eta idatzi dute emakumeek gaiari buruz. Aukeratu ditugun liburuen artean haur literatura, komikiak, autobiografiak, saiakerak eta eleberriak daude bereziki. Badago ere besteen eskutik eta era kolektiboan bakardadea gainditzeko aukera izan duten emakumeen testigantzen bat jasota. Komunitatearen balioa eta elkarrekin egoteko plazeraren boterea erakusten dute.

 AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

**T**ratu txarrak eragiten dituzten erasotzaileek, jo aurretik, biktimak nahastu, manipulatu eta isolatu egiten dituzte. Aski da eskuetara iritsi aurreko guztia tratu txar gisa identifikatzea. Nahikoa eta sobera. Horixe bera ikusten dugu Adela Turinek idatzi eta Nella Bosniak ilustratutako *Arturo eta Klementina* liburuan. Dortoka bikote ezkon-berriak pozik daude hasierako orrietan, baina Arturo lagunekin egotera doan denbora tartean Klementina bakar-bakarrrik geratzen da etxe inguruan. Afizio guztiak baztertu eta dortoka pasibo izatera bultzatzen du Arturok Klementina, egiten dizkion opari ugari eta hutsalekin. Biolentzia sinbolikoa, psikologikoa eta emozionala oso agerikoak dira. Baina fisikoa ere badago, izan ere, oskol gainean lotzen dizkio opari guztiak, Klementina pisu handia eramatera behartu eta gorputzeko nekea zein mina

eraginda. Oso liburu aproposa izan daiteke txikienekin irakurri eta biolentzia motak eta maitasun erromantikoaren tranpak zeintzuk diren identifikatzeko.

Rosalind B. Peinford ezizenarekin sinatutako *Dragonslippers: This is what an abusive relationship looks like* (*Ondo maita nazazu*; Harper Press, 2006) komikia ere ildo beretik gomendatuko nuke. Tratu txarrak bizi izan zituen bitartean, marrazkiak egiten zituen nobela grafiko autobiografiko protagonista horrek. Bikote harremana utzi ahal izan zuen eta terapeutak gomendatuta marrazkiak berreskuratu, eta osatze prozesua egin ahal izateko tresna ziren irudiak ikusiko dira liburuan. Txuri-bel-tzean egindako irudiak dira guztiak. Ez dute estetikoki ederrak izatea bilatzen, baina oso eraginkorrak dira, eta askotan gordinak. Biolentziaren ñabardurak eta konplexutasunak erakusten dizkigu, emakume horrek bizi izan zuen isolamendu egoera bereziki azpimarratuta.

Azken urteotan bortxaketa, sexu abusu eta sexu erasoak jaso dituztenen hainbat liburu irakurri ditugu. Bortxaketaren kultura emakumeak beldurtu eta jasateko eraikita dago, eta primeran funtzionatzen du: biktima beldurtu, eraso egin, errua sentiarazi, lotsarazi eta mehatxatu ostean, isiltasuna erreakzio logikoa da, bereziki, hori onartu, bultzatu eta babesten duten jendarteetan. Hau da, ia gehienetan. Roxane Gay idazle eta editoreak *Not That Bad: Dispatches from Rape Culture* (*Ez da horrenbesterako*; Harper Coliins, 2018) liburuaren koordinazio lana eta edizio lana egin zituen. Isiltasun horrekin amaitzeko aukera eskaini zien hainbat emakumeri, eta lehenengo pertsona kontatutako testigantzetan oinarritzen da saiakera hau.

Kontakizun guztiek komunean duten esaldiak ematen dio izenburua liburuari: "Ez da horrenbesterako". Beraien buruari esaten zioten hori askok, eta beste kasu batzuetan inguruko pertsonen

esaten zieten esaldia, garrantzia kenduz. Denek zuten sinetsita ez zutela beldurrik izan behar. Isiltasunak isolamendua sortzen du eta sinestarazten dio erasotuari berari bakarrik gertatu zaiola, eta inpunitatea ematen dio erasotzaileari. Bakardade handia sortzen dio eraso bizi izan duen pertsonari.

Delphine de Viganen *Rien ne s'oppose à la nuit* (Ezer ez da gauaren aurka jartzen; JC Lattes, 2011) liburu autobiografiko bat da, autoreak historia familiarra arakatu ahala aurkitzen dituen gertakarien kontakizun. Bereziki interesgarria da trapu zikinak atera ahala familia bere kontra nola oldartzen den irakurtzea. Zenbat eta sekretu gehiago ezagutu, orduan eta gogorragoa bihurtzen da familiaren erantzuna. Emakumeoi "dago-kigun" isiltasuna haustera ausartzea gehiegi da familia horrentzat eta patriarkatuarentzat. Isiltasunera kondenatu

nahi duten arren, ez dute lortzen, bidean hainbat aliatu aurkitzen dituelako.

Osasun faltak ere pertsonaren isolamendu zein bakartzea ekar dezake. Gaixorik egoteak bakardade sentipena handitu dezake, bereziki dependentzia egoera batean egonez gero. Katakarak argitaletxeak gaztelaniara ekarri duen *On Our Own* (Gure erara; 1979) liburuak oso ondo erakusten du eromenaren diskurtso mediku instituzionalak nola indartzen duen isolamendua, bakardadea eta eragiten duen gaixotasuna. *Orgullo loco* mugimendutik datorkigu abisua kasu horretan. Eroak besteak direla pentsatzea gustatzen zaigu, baina patriarkatu jaunarentzat emakume guztiak gara "eroak". Carme Valls Llobetek bere ikerketa zein lan esperientzian oinarrituta zera jartzen du mahai gainean: alde batetik osasun sisteman emakumeak ez direla gizonak bezala artatzen, eta azkarrago ematen zaizkiela osasun mentarekin lotutako diagnostikoak (adibidez, psikofarmakoen %70 emakumei agintzen zaizkie). Beste alde batetik ez dagoela ikerketa diferentzialik, eta beraz, gizonen neurriera eta beraien sintomekin prestatutako diagnostikoak egiten direla, heriotzak eragiteraino. Eta beste adibide bat jartzearren: gutxitan hartzen dira kontuan faktore soziokulturalak, tratu txarrak, bortxaketak, generoetan oinarritutako rol banaketak eta abar. Osasun fisiko zein mentalean izan ditzaketen eraginak ez dira aintzat hartzen.

Isiltasun eta desinformazio medikuak bakardade handia eragiten dute emakumeen bizitzetan. Gogoratu ezazue beste la Edo!k euskaraz argitaratu zuen Charlotte Perkin Gillmanen *Hormako paper horia*. Erditze ondorengo depresioa izan zitekeena medikua den senarrak nola diagnostikatu eta tratatzen duen ikustea besterik ez dago: bakardadea, isiltasuna, pasibotasuna eta isolamendua dira errezetak. Txalapartak euskarara lehen aldiz ekarri duen Sylvia Plathen *Beirazko Kanpaia* liburuan nola erakusten diren krudelkeria, hoztasuna eta bestea ulertu ezina protagonistarengan hutsunea eta bakardadea utzita. Adibide batzuk besterik ez dira.

Alor kulturalera salto egin eta gurera gerturatuta, Arantxa Urretabizkaiaren *Bidean ikasia* (Pamiela, 2016) autobiografia eta Uxue Alberdiren *Kontrako ez-tarritik* (Susa, 2019) liburuek argi uzten dute alarde parekidea lortzeko borrokan zein bertsolaritzan ezinbestekoak izan direla emakumeen arteko sinergia eta elkartasuna. Egoera aldatzeko egoera politizatu eta kolektibizatu egin behar izan dute, ez jazarpen, biolentzia eta isiltasunik gabe. Baina mugimendu feministak babestu ditu beraien bideetan, eta mugimendu feministan babestu dira beraiek ere. Tuntuna dirudi proposamenak, baina besteekin elkartzea errezeta paregabea da bakardadea transformatzeko. ●





## LIBURUA

## Zera



BRUTSDELANGUES.FR

## QUEEN KONG

HELENE VIGNAL

ITZULPENA: MIREN AGUR MEABE

ELKAR, 2023

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

**T**estu motz eta intentso honen egilea da Helene Vignal. Gazte literaturako egilea, eta liburu honekin hainbat errekonozimendu jasotzeaz gain Pepite d'or sari prestigiotsua ere eskuratu zuen 2021ean. Miren Agur Meabek itzuli du testua Elkar argitaletxearen eskutik. Eus-kara jasoa eta aberatsa erabili du, zaindua. Eta aldi berean testuaren erritmo, tonu eta edukiari oso ondo datozkion hitzak zein soinuak hautatuta.

Liburua motza da. 70 orri inguru ditu. Hainbat gai. Sexualitatea libreki bizitzeko hautua eta norbere plazera deskubritzeko zein gozatzeko aldarrikapen bat da. Aldi berean hautu hori egiten duten emakumeak zigortzeko jendarteak, oro har, erabiltzen duen moral bikoitza salatzen du. Eta zehazki sare sozialetatik egiten den lintxamendua. Eta, bukatzeko, auzitan jartzen du nerabezeroan

sexua izateko taldeak eragin dezakeen presioa.

Liburuaren izenburuak Virgine Despentesen *King-kong teoria* ekar liezaguke burura eta liburu irakurrita keinu bat delako usteak indarra hartzen du. Protagonista bere buruarekin jolasean aritzera ohituta dago zortzi urtetatik, bere alua ikutzera, masturbatzeraz eta orgasmatzera. Nerabezeroan, ordea, beste batzuekin partekatu nahi du sexua; bere buruarekin sentitzen duen plazera handitzen ahalegindu. Argi dauka ez dituela sexua eta maitasuna nahastu nahi. Eta lau mutilekin dituen esperientziak kontatzen dizkigu orriotan. Bakoitzarekin esperimentatzen dituen egoerak anitzak dira eta irakurle gisa ere bidaia emozinal bat egingo dugu: indiferentzia, goxotasuna, erotikotasuna, amorrua, empatia... sentitu ditzakegu.

Lehenengo pertsonan idatzitako testu honek hasiera hasieratik harrapatu nau. Tonu epiko eta indartsuak sugarra piztu dit barruan eta hau lortzeko esaldi zuzenak eta afirmazio borobilak erabili ditu autoreak protagonistak bere buruarengan duen segurtasuna erakutsiz. Tonu erotiko eta sentsula hitzekin, aditzekin lortzen du. Esaldi oso motzekin. Elkarrizketa eta testua nahastuz. Arnasestuka irakurtzen da kasik. Tonu amorratua ezezko esaldi eta galdera erretoriko ugarirekin sortzen du. Misterio kutsu bat ere badu: zer gertatu da zehazki? Zertaz ari da *zera* esaten duenean? Hasieratik susmatu daitekeen arren intrigak ere harrapa dezake irakurlea. Finean, hunkigarria, probokatzaila, freskoa, esplizitua den testu bat lortu du autoreak. Nerabeentzat zein helduentzat oso aproposa. ●



MUSIKA

# Ez jaun ez andereentzat



J.A. ARETIA GONZI JUJXE



## DIRECTO (2xLP) SEÑOR NO

FOLC RECORDS, 2023

### IKER BARANDIARAN

**I**bilbide luzea duten taldeekin sarri gertatu ohi da: zale batzuen kritikak jasotzen dituzte eskaintza bera egiten dutelakoan; eta beste batzuk sortzen dituzten lan berriekin hasierako sugartetik aldenduta ikusten dituztelako. A ze patua, nola asmatu!

Donostiako auzoetan 1993an sortutako Señor No taldeari, hein batean, bigarrena leporatu ahal diote batzuek, zer esanik ez hastapen luzeko emanaldietan ikusleak kiskaldu egiten zituztela jakinda. Jarraitu dute, aspalditik abeslari, *frontman* eta kantuen sortzaile nagusi den Xabi Garrek gidatuta, eta alboan ditu Fumai baxu jotzaile fina, antzinatik; Fosy bateria prestua; Jorge gazte zaildua gitarran eta azken ur-

teotan, baita Joseba B. Lenoir gitarra jotzaile handia ere. Sua ez da inola ere itzali eta kantuak sortuz arriskatu eta aurrera egiten dute, baina azken hamarkada luzean argitaratutako kantuek tarteka beste *tempo* bat dute, beti ere rock-and-rollaren eta *wah-wah* pedaleren baitan bada ere. Bizilegea.

Taldeak bederatzi disko luze ditu (eta dozenaka EP eta bestelako) eta horietako bakarra, orain arte, zuzeneko: hain zuzen ere, guztion harri-durarako (eta gure gozamenerako) 2006an Egiako Bukowsky tabernan sasi-akustikoan grabatu zuten *Señor Sí* lana. Iazko abenduan, bada, Egia auzoko Dabadaba-n honako zuzeneko grabatu zuten, binilo bikoitzean

kaleratu dutena eta hamasei kantak osatzen dutena.

Bertan badira *high-energy*-a, Bukowsky-ren eskolako testuak, *Señor No*, *MC5 Sí* esamoldearen esentzia zein akaberarik gabeko *wah-wah* pedalerak marka dituzten *Fiestón*, *Nadie*, *Prefiero verte*, *Llámame*, *El diablo está caliente*, *Inherente* eta *Masacrante*-ren gisako eresi basati eta garratzak, baita psikodeliaz bustita dagoen *Como una pompa de jabón* zein *A veces no* eta *Caramelo relaja* itsaskorrek ere, eta God taldearen *Mypal*. Hala, txinpartak eta *tempo* erdiak uztartu dituzte taldearen sasoiko erretratua eginda. Eta postdata: bertsioez osatutako disko berria dute labetik ateratzear. Geldiezinak. ●



# Nahi dudan lololo bakarra

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📺 ZENTRAL ARETOA

**K**ontzertua ikusi eta astebetera idazteko tartea hartu dut oraingoan. Arrasto handiko kontzertua izan zen Rodrigo Cuevasen Emmusikadas jaialdiaren harira Iruñean eman zuena. Emanaldiaren hondarrak ongi digeritzea merezi zuen.

Ezagutzen ez duen inor geratzen bada, Rodrigo Cuevas da izen eta abizen esaten diren artista horietako bat. Folklorista bat. Marikoia. Asturiarra. Hautsak harrotzen dabilen horietako bat. Eta elementu horiek guztiak nahastutako proposamena egiten du orain urte batzuk, ezagun azken hilabeteetan egin bada ere.

Ez naiz ni oso folklozezalea. Hori has-teko. Gurean, trikitiak eta euskal dantzak eta tradizio atzerakoi xamarrak esplotatu egin ditugu, eta euskalduntasuna horretara mugatu dugu urte luzez. Baina ari dira han hemendik folkloreakerikiko ikus-kerak berriak pizten. Izan ere, folkloreak

hori du oinarri: herriarena dela, eta be-raz, herria aldatzen bada, folkloreak ere aldatu behar du.

Aretoaren atzealdetik bat-batean agertu zen Rodrigo, jende artean bere ahotzarraren laguntzarekin besterik ez zuela abesten. Aurreko kontzertua bukatu ostean kurioso batzuk geratu ziren. Beste asko horretarako propio etorriak ziren. Abanikoa eskuan eta jendeari aurrez aurre kantatu zion oholtzara bidean. Luma ezin ezkutatu, nahi ere ez.

Erromeria baten gidaliburu itxura eman dio lan kaleratu berriari. Eta hain zuzen, erromeria bat eskaini zuen hiri buruzagian ostiral iluntzean: *showa*, dantza, barreak eta Cuevasen hitzetan egoera fisiko, animiko, oniriko eta espiritualean murgiltzeko aukera ederra. Flekoak bezazprietan, alkandora iradokitzailea, eta feltrozko zapatak. Tradizioaren elementuak eta *drag* apur bat.

## RODRIGO CUEVAS

**NOIZ:** Irailaren 15ean, Emmusikadas jaialdiaren barruan.

**NON:** Zentral aretoan (Iruñea).

Asturieraz kantatzen du. Eta euskaraz buruz ikasitako lau esaldiak ahotan zituen behin eta berriz. Iruñean bizi guztia daraman baten batek baino gehiago behintzat egin zuen, Euskal Herriko kontzertuetan ongi geratzeko baldin bada ere. Barraren gainera igota dantzatu zen. Aldarri egin zuen askatasunaren alde. Kantatu zien tradizioei eta Xixonen eraildako Rambal marikoari. *Perreatu* zuen, eta jotak kantatu ere bai.

Gauza asko gertatu ziren. Baina esan dezakedana da ni, *lololo* egitearen kontrakoa naizen hau, *lololo* buiaka kantatzen bukatu nuela. Asturiarrez edo euskaraz, folklorea eta gizartea iraultzeko bada, hooliganismoak balio didalako. Rodrigo Cuevas bezalako asaldatzailer gehiago behar dira, eta zorionez ari dira apurka loratzen, gurean Altxaliliak dira burura datorkidan paralelo azkarrak. ●



# Hitz gezidunak

Gaia: \*Kilometroak 2023

KOADERNO ITZALTSU	NIREAK GIBELUR- DINAREN ANTZEKO PERRETXXIKO	PARADISU BIBLIKOA	OTE-MOTA GOGOR ZALANTZA PARTIKULA	ZORO, ERGEL OXIGENOA	UKAN OHITUA	URRATSA ITALIAKO BIZTANLE	
		DOTORETA- SUNA NORI ATZIZKIA					
* HERRIA UKRAINAKO HIZKUNTZA				OKA EGIN ANGSTROMA			
					APAIZ NAGUSI JUDU ZINTZO		
BAKARRA	IKUSI (LA- BURDURA) AURKAKO					LOTAN *LELOA	
		GAUZATU				OIHUA, HOTSA EGURRA	
IXILIK LANDA, SALBU							EZTIA EKOIZTEN DUEN INTSEKTUA
	BYTE ERLOJU, ORDULARI					KOLORE BELTZAKKA INTSEKTU MOTA	
ORDAINTZE- KO BEHAR BIRATZERA BEHARTU		SEIGARRIN MUSIKA NOTA RONA	...ZART, TXINPARTEN ONOMATO- PEIA ZEGOEN	BOKAL BIRIBIL	IODOA SOTO, UPATEGI	ROENTGEN ZEZEN ZIKIRATU	
				ERABAT ZEHARO DAUKA			
KEZ BETE OROITARRI			ERDIGUNE ELEKTROIA				
					KASIK ABANTZU		

## Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

4			7	3			9	5
6		1		9	8		7	
7		9	6	5				1
3		7	4	8				2
		8			6		3	
5			3	7	2	9	6	
	4			6				
1				3			5	
	7		1					6

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Sokil, mokor.
- Heldu, atxiki (bizkaieraz).
- Kasa, kontura.
- Bi aldeko edo gehiagoko eginiko hitzarmena.
- Luzaro.


## EBAZPENAK

1. MOKIL
2. OBATU
3. KABUZ
4. ITUNA
5. LUZAZ

4	8	2	7	3	1	6	9	5
6	5	1	2	9	8	3	7	4
7	3	9	6	5	4	2	8	1
3	6	7	7	4	8	9	5	1
8	9	6	7	2	9	6	8	
5	1	4	3	7	2	9	6	8
2	9	8	5	1	6	4	3	7
1	2	6	8	7	1	2	3	4
9	7	3	1	2	5	8	4	6

V	A	I	V	I	U	T	N	E	M	U	N	O	M
I	I	V	I	D	I	V	L	D	E	R	T	U	K
L	I	O	I	T	X	O	I	L	B	I	R	V	A
R	I	O	I	O	Z	L	R	Z	R	O	Z		
E	A	R	R	E			B	T	V				
							Z	U	R	A	O	X	I
							D	E	I	A			B
							L	O	N	O			I
							S	N	A	V	A	R	U
							K	A	V	A	T	O	
							Z	E	Z	O	R	D	O
							I	E	O	E	E	B	

# Nora Salbotx

IRAKASLEA



## BELL HOOKS

Gloria Jean Watkins izenarekin AEBetan jaioa, idazlea, irakaslea eta militante feminista izan zen bell hooks (1952-2021). Haurra zela, beltzentzako eskolatan hasi zuen ikas-ibilbidea, "agudo ohartu ginen ikasteko eta buruarekin bizitzeko geneukan grina hura ekintza kontrahegemoniko bat zela"; gero, zuriarekin batera ikasgelan, dezepzioa handia izan zen. Bai ikasle gisa bizitakoak, bai irakasle gisa praktikara eramandako pedagogia askatzaileak eta horren bueltako erresistentzia, beldur, hutsegite eta fruituek ondu dute, besteak beste, *Transgresioa irakasgai*. Hezkuntza askatasunaren praktika gisa.

"Dena berdin azaltzen saiatzen gara, gure gorputzak, bizipenak, ezberdinak izanda ere"

Bell Hooks irakaslearen liburua euskarara ekarri du Katakarak: *Transgresioa irakasgai*. Hezkuntzaren indar iraultzaileaz, ahots baztertuez, gorputzek ikasgelan duten presentzia, irakasleen beldurrez eta han-hemenka abiatutako iraultza txikiez hitz egin dugu liburuaren hitzaurrea idatzi duen Nora Salbotxekin: "Diskurtsiboki kritikoa dira irakasle asko, baina praktikara jaitsita arazoak hasten dira".

MIKEL GARCIA IDIAKEZ DANİ BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**Hezkuntza beti krisian. Paradoxikoa da gainera: gizartea eraldatzeko giltza da, baina statu quo birproduzitu baino ez duela egiten kritikatzeko da.**

Hezkuntza krisian dagoela askotan aipatzen den arren, guttitan aipatzen da krisi hori espresuki iraunkortu dela, eta ez dela zerutik erortako krisi bat, 1980ko hamarkadan neoliberalismoak eta kapitalismoak hezkuntzan izandako esku-hartzearen ondorioa da. Hezkuntza ote den birproduktzioarako estatuak duen tresnarik eraginkorrena ala askapenerako giltza, hori ere eztabaida klasikoa da, batzuetan bietatik ere badu, batak besteari arrakalak egin nahian. Bistan da hooks-ek, pedagogia kritikorekin lerrotatzen den heinean, bigarren tesiaren alde egiten duela: askatasunerako eta emantzipazioarako dugun tresnarik indartsuenetakoa da hezkuntza.

**Bide horretan, borroka, iraultza, erradikalizazioa... darabiltza hooksek. Gaizki ikusitako kontzeptuak dira ikasgela eta ikasleengan?**

Paulo Freire pedagogoari tarte handia eskaintzen dio hooksek. Are, pedagogia kritikoa bi piezako puzzlea balitz, Freirek pieza bat jarri du eta hooksek beste bat: zapalkuntzen, deskolonizazioaren, mendebaldeko gaitzaren beharrezko kritika ho-

rri guztiari hooksek feminismoaren ekarpena egin dio, eta guztiaren oinarrian dago hezkuntza ez dela neutrala, horregatik digresioz beteriko eztabaida sutsuak bulkatzen dituzten ikasgelen alde egiten du hooksek. Baina erranen nuke baietz, gaizki ikusita dagoela hori, eta kurioa da, plano teoriko eta diskurtsiboan irakasle gehienek diotelako sozio-kritikoa direla (Euskal Herrian egin zen ikerketa baten arabera), baina praktikara jaitsita, arazoak hasten dira, eta neutraltasunaren eta objektibotasunaren falazian erortzen gara, beldurrez, konplexuz.

**Hain justu, asmo iraultzaileak dituzten irakasleen beldurrez mintzo da hooks, eta nola beldur horiek azkenean kamusten duten hasierako nahia. Beldurra irakaslearen autoritatea (boterea?) galtzeari, plangintza aldatzeari, eztabaidatzeari...**

hooksek dio irakasle aurrerakoi antzek ez dutela arazorik plano teorikoan adibidez klase-aurreiritziez aritzeko, baina praktikan, ikasgelaren barne logikan, moldeetan eta portaeretan "arau burgesa" deiturikora jotzen dutela. Alegia, burgesiarren manera onen moldeetan aritzen gara, eta hori gainditzea kostatzen zaigu, kostatzen zaigu aniztasuna onartzea, horrek dakarren guztiarekin: norbere gorputza, jarrera, hitz



"Kostatzen zaigu aniztasuna onartzea, horrek dakarren guztiarekin: norbere gorputza, jarrera, hitz egiteko eta janzteko modua..."

egiteko eta janzteko modua... Beldurra zaio horri, irakaslearen autoritatea ez-baian jarriko delakoan eta ikasgelaren kontrolak ihes egingo digulakoan.

**Klase, arraza eta genero deskolonizazioaren beharra hooksek ez baitu mugatzen ikas-materialera, deskolonizazioa behar da ikasgelako dinamika eta eztabaidetan ere.**

Erroetara doa: ez da aski ezagutza askatzaile bat transmititzea, praktika askatzaile baten bitartez egin behar da, praktikak berak ere askatzailea behar du izan. Euskal Herritik irakurketa interesgarria egin daiteke: gure bizipenetatik abiatuta, subjektibotasunak aldarrikatzea eta ikusgarri egitea falta zaigu, hezkuntza neutral eta objektiboa delakoari kontra egitea.

**"Objektiboa" hitz potoloa da.**

Eta erabat bilatua: gizon zuri burgesa eta haren begirada neutralak dira, objektiboak, eta hortik kanpo geratzen dena bistan geratuko da, arreta deituko du. Baliatu dezagun hori, sisteman zirrikituak bilatu eta arrakalak sortzeko.

**Ildo berean, esperientzia indibidualak gutxietsi eta ikuspegi orokorra lehenesten dutenen aldean, ikasgelako komunitatea osatzen duen bakoitzak (izan) duen esperientziari garrantzi handia ematen dio hooksek, ikas-**

**prozesua aberasten duelakoan eta ahots baztertuak ahots pribilegiatuaren kontrapuntu gisa funtzionatzen dutelakoan.**

hooksek eskola segregatu batean hasi zuen bere ikas-ibilbidea, beltzak alde batean eta zuriak bertzean, eta horrek arrasto handia utzi zion hasieratik, bere bizipenek eta beste hainbat iturrik eraman zuten hooks esperientziari sekulako garrantzia ematera, baita gorputzari ere, eta behin eta berriz aldarrikatzen du burua eta gorputza banandu ezinak direla, nahiz eta sistemak sinetsarazi burua besterik ez garela. Fisikotasunaren aldarri hori ekarpen itzela da eta dio hezkuntza jardueira guztiak zeharkatu beharko lituzketela gure gorputzak eta hortik abiatu beharko genukeela. Berdina al da ikasgelan irakaslea tarimaren gaineratik aritzea edo ikaslearen ondotik? Nola eragiten dute janzkerak, mugitzeko moduak, hitz egiterakoan erabilitako aldaerek...? Ari al gara denok modu batera edo bestera antzeztzen inposatu zaizkigun burgesiaren eta patriarkatuaren manerak? Berdin azaldu behar al nuke esklabismoa eta kolonizazioa, beltz edo zuri izanda? Eta 1936ko gerra, bando bateko edo besteko biloba izanda? Eta literatura edo hizkuntzari loturikoak, euskaldun edo erdaldun izanda? Ez dugu ariketa politikoa hori egiten, eta saiatzen gara dena berdin azaltzen, gure gorputza, bizipenak, esperientziak ezberdinak izanda ere.

**Hezkuntza askatzailea egiten saiatzen diren irakasleek ere ari da liburuan. Gurean ere baditugu...**

Badira, bai. Hezkuntzatik borrokatzen dugun burujabetza oro zirrikitu eta arrakala dira bide horretan: burujabetza teknologikoa, elikadurarena, hizkuntzarena, lurrarena, gorputzarena, sexu-genero sistemaren bueltakoa... Bide horretan ari gara, espazioak eraldatzen ditugunean begirada feminista batetik, helduzentrismoaz gaindiko ekimenak proposatzen ditugunean, jangelan bertako ekoizleen elikagaiak erabiltzen ditugunean, batzarrak antolatzen ditugunean, memoria historikoa eta langile klasearena lantzen ditugunean gelan, euskararen bitartez elkar "ukitzen" ditugunean (hooksen hizkuntzari lotuta darabilen esaldi eder bat baliatuz), baita fardelak begietara begira aldatzen ditugunean ere (eta ez fabrika batean bageunde bezala)... Kontua da ea hori guztia politizatzen dugun, ea kontzientzia politikotik egiten dugun, jabetuta iraultza txiki horiek batuta iraultza handi bat egin dezakegula. Finean, eskolan goizean sartzen garenetik ilunabarrean ikastetxea garbitzen duten arte gertatzen den guztia politikoa da (zaintza, elikadura, botere harremanak, parte-hartzea, hizkuntzak...) eta horren kontzientzia hartzea beharrezkoa da. ●

# Hezkuntza Legeaz labana artean

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**E**z dakit zuek nola ikusten duen zuzen asuntua, baina niri, EAEko Hezkuntza Legearen harira izan ditugun azken nobedadeak –alderdiek joan den astean aurkeztutako emendakinak, atzetik etorri den polemika eta abar marmar–, edozer gauza iruditzen zaizkit nobedadeak izan ezik. Eta tontamentean nire burua labana hegalarren espektakulu baten erdian harrapatuta ikusteko arriskua onartuz, saiatuko naiz esplikatzeko zergatik –artikuluaren parte honetan *Indiana Jones*-en soinu bandak hasi behar luke automatikoki, baina aurrekontu-arazoak dauzkagunez, ejem, hezkuntzak bezala, zuen kabuz laraileroitu beharko duzue–.

Has dadila abentura: EAJk eta PSE-EEK konpontxo egin eta A-B-D ereduak mantentzeko modua egin dute. Edo ez. Segun eta zeinek esplikatzeko duen. Eneko Andueza klakea dantzatzeko atera da prentsaren aurrera, “eredu linguistiko elebakarra” instalatuko ez dela ospatzen, beraz badirudi baietz: Ultras Bertendonako zaleak bufandak oso fuerte astintzen, plaza mantentzeko euskaraz ikasi nahi ez duten irakasle elebakarren zoramena harmailetan –elebakar onak, benetakoak; ez kosta ahala kosta desagerrarazi behar diren euskaldun elebakar imajinario maltzur horiek–. Badirudi gola izan dela, baina hor dator Jokin Bildarratz atzamar puntekin airean pantaila marrazten, errepikapena ikusi behar dela, A-B-D ereduak gaudituta daudela eta aurkeztu duten emendakina ez dela PSE-EEren gola, agian ez dela gola ere, kontua ondo aztertzean “semantikaz ari garela” jabetuko omen da estadio osoa. Nik gehiago ere esango nuke: pragmatikaz ari gara. Alegia, esaldien testuingurua kontuan hartu behar da. Alegia, EAEko kultura politikoaren barruan gertatzen ari da hau guztia. Alegia, errepa-



ratu behar zaie motor autonomikoaren balbulei, bielei, pistoiei.

Karburagailuan EAJ-PSE paktua daukan kultura politiko horrentzat funtsezko pieza izan baita anbiguotasuna. Urtetan biek adostutako kontuek balio izan diete aldi berean esateko a) pausoka-pausoka Euskadi bere bidea egiten ari zela; eta b) lasai erretzeko purua, nazionalistekin ados jarri arren, Espainia bat eta bakarra dela. “Ezberdinen arteko paktua” deitu izan zaio pieza horri, negozio askorako balio izan du eta momentuz tailerlean ez dago errekanbiorik, zeren d) ezker independentistak, paktu horiek salatzeaz gain, erabaki du eta zin egin EAJ Maltzagaraino eramango duela, baina errepidean *Ikusi mendi-zaleak* kantari doazela, beti iristen dira neskaren mamua agertzen den kurbara, gelditzen dira, jaisten dute leihatila zer dioten entzuteko eta espektroak ahoskatzen du: “Xibertaa”. Eta EAJ kotxetik jaisten da izutu denaren itxurak eginez –berez beste plan bat zeukan–; eta ezker abertzaleak oihukatzen dio: “Ei, baina ez

alde egin orain!”; eta gero, bueltatzen ez dela ikusirik, purrustaka hasten da.




Familia politikoen aspaldiko ohiturak, beraZZZZZZZZ. Klaro, familiak ez dira gizartea; eta hezkuntzaren planifikazioak, gizarte osoari eragiten dion neurrian, aitortu behar lioke prozesuaren parte den komunitateari autonomia gradu handi xamar bat alderdietatik harago. Asmo deklarazioak gorabehera, ez baita zail-zaila ere izan ikustea lege honetan klan guztiek helburu desberdinak zituztenez, bakoitzak interes partikular batzuk salbatu nahi izan dituela –*Gose jokoak* gisa ere ezaguna den kontratu-programen eredu (EAJ), euskalduntzeari buruzko kontzeptu minimalista (PSE) edo ikastolen finantzazioa (EH Bildu), besteak beste–. Eta orain, atera den Frankenstein hori noren botoekin onartuko den ikustea bakarrik falta da.

Bueno, eta niri bizkarretik matxete hau ateratzea: bale, ez zaudela ados, baina tamaina honetako gauzekin erasoka hastekoa izan denik ez zait iruditzen, jope. ●

# 500

dokumental euskaraz eta doan

Euskarazko  
dokumentalen  
txokorik  
handiena



 [www.dokumentalak.com](http://www.dokumentalak.com)

ARGIA jendearen diru ekarpenek posible egiten dute proiektu hauek libre eta doakoak izatea.

Egin ARGIAkoa!

# ARGIA EGUTEGIA 2024

*Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.*



+ 5€  
bidalketa gastuak.

40 €-tik gorako  
erosketetan,  
bidalketa doan.

10€

Memoria ahuldu egiten da lantzen ez bada. Hala zioen Zizeronek eta arrazoi horregatik, bosgarren urtez ARGIAko egutegi honetan efemeride historikoak aurkituko dituzu egunero orrien atzeko aldeetan. Hedabide hegemonikoek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira gehienak, argi esateko. Urteurren borobilez kargatuta datorkigu urtea.

Orrien aurreko aldeetan, data argi eta garbi, euskal izendegia, eguzkiaren eta mareen informazioa, eta jai egunen erreferentziak -arrotzak direnak, hala zehaztuta gainera- 2024 on!

Aurre-salmenta:

**azoka.argia.eus** (+34) 943 37 15 45

